

...eta!
Kitto!

2018-V-4

1056 zkia.

Mundu oso bat iruditan



Gure betaurreko guztiak
2018 bildumakoak dira

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpalmaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

2 mō betaurreko:

gama altuko
progresiboak

+
eguzkitako progresiboak

229€

www.multioplicasgipuzkoa.com



Arrasate • Bergara • Beasain • Donostia • Errenteria
Irun • Lasarte-Oria • Ordizia • Tolosa

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Eibarko La Salle Azitain

Arte

Batxilergoa

Giza eta Gizarte

Zientzietako

Batxilergoa



Zientzietako

Batxilergoa

**ZATOZ
GUREKIN**

Aurrematrikula zabalik maiatzaren 2tik 14ra



IKT-n heldutasun-maila
ALRRERATUA duen ikastetxe
Centro acreditado en el nivel
AVANZADO de madurez TIC

www.lasalleebar.com
emaila: azitain@lasalle.es
Tel: 943121698

ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

EKARTEAREN E-MAILAK:

elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:

Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belautegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:

Danny Yen Sin - Bras Copper.

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto! "k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– Ez ditugu euren azpijokoak onartzen –

EAJ-PNVren azken jokaldiak bi helburu zituen:
1. Partidu Popularraren aurrekontu antisozial eta atzerakoia onartzeko aitzakia bilatzea, "155ari ez" aho txikiarekin esaten baitzuten.
2. Gizon eta emakume pentsiodunak kaleetatik, eta batez ere Bilbotik ateratzea. Bilbo borroka honen gidari garrantzitsua izan da, eta 2019rako boto asko galtzen ari ziren.
Egia da "kromoen trukaketa" horrekin bat baino gehiago desanimatu eta engainatu dutela. Baina nukleo sendoa osatzen dugunok zutik jarraitzen dugu, borroka egiten, txikikeri horiek -mamitsuak izan arren- ez baitira beste aldarrikapen batzuekin batera eskatu genituenak (gutxieneko 1.080 euroko pentsioak, KPI errearen igoera, atzerapenak, 2011 eta 2013ko legeen indargabetzea eta Iraun-

kortasuna, konpetentziak Euskadiko Segurtasun Sozialera transferitzea...).

Pentsio publiko duinta eta blindatuak aurrekontuetan eta Konstituzioan. Ez dugu esku batetik bestera ibili nahi, boterean dagoen alderdiaren arabera. Eibarren honako hau erabaki dugu, eta elkar-tzen garen jendearen arabera egokituko dugu:

- Sinadurak biltzea, Eibarko Udalean mozioa aurkezteko.
- Maiatzaren 5ean, bihar, eskualde mailako manifestazioa egitea Untzaga plazan, 12:00etan.
- Astelehenetan Untzagan 12:00etan egiten ditugun elkarretaratzeekin jarraitzea.
- Maiatzaren 26an manifestazioa egitea Eibarren.

Eibarko pentsiodunen plataforma, Biztu Jubilatuta
Etxeen elkarte eta Duintasuna elkarte

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MAMINTZA.- Koipea, Ioditasuna. "Lepuan eukan mamintziak arruak pixatzen zittuan".

MANDAKO.- Mando gaztea. "Arre, arre, mandako / bihar Tolosarako / etzi Panplonarako / handik zer ekarriko? / zapata ta gerriko!".

Astokilo, saskarra. Gaztelera "bruto". "Mandako galanta zan morroi bat etxe hartan".

astean esanak

"Kirol profesionala eta amateurra bi mundu ezberdin dira: profesionala izozmendi baten zati bat besterik ez da. Kirolari ikoniko horiek erreferente ditugu askotan, baina azpian daude helburu horretara iristea lortu ez duten milaka eta milaka lagun. Kirolaren heroi, izar eta txapelkun handia porrot askoren emaitza da. Hitz bakar batekin definitzen dugu mundu oso bat; hori da arazoa. Gainera, kirol hedabide batean estereotipo matxisten zantzu gehiago aurki daitezke beste edozein hedabideetan baino; egunerokoan onartzen ez ditugun jarrera batzuk onartzen ditugu kirolean"

(RAMON LLOPIS, SOZIOLOGOA)

"Munduari lotua behar da izan, ez bakarrik gure mundu txikiari. Uste dut, goiz edo berandu, denek joan behar genukeela herriz kanpo bizitzera, ez kolonizatzaile bezala, ikustera besteen bizia zer den, partekatuz; aberatsago itzultzen zara. Gainera, norabait joaten garenean, bi urte edo gehiago, orduan eta atxikimendu handiagoa sortzen da gure baitan sorterriri buruz. Norabait joanda, arbolak bezala adarrak zabalitzen dira, eta momentu berean erroak barnerago joaten dira. Niri, hasteko, on handia egin dit Boli Kostan bizi izandako urteak. Gainera, euskal diaspora beti lotu da euskaldunak Ameriketara-eta, edonon dago-eta barrutik aberastea"

(PEIO JORAJURIA, IDAZLEA)

"Ez dago alderdi politikorik kasu egiten digunik. Raxoiekin egon aurretik ere PSOE eta Podemoseko diputatuekin egonda ginen eta, beti alde izanda ere, azkenean ez digute soluziorik ematen. Sindikatuek ere ez dute ezer egiten, bizitza oso erosoan daramate eta eskatzen duguna oso zaila dela diote. Eurek eta patronalak amildegiraino bultzatu gaituzte eta gurekin haserretu dira Raxoiekin bildu ginelako. Sudurluze batzuk garelako diote, hau euren borroka dela eta gutaz aprobetxatuko direla... lerdotzat hartzen gaituzte. Baina, urte bitan hainbeste alfonbra altxa baditugu, euren baliabide eta subentziorik gabe, ez gara hain ledoak izango. Bitartean, eurek ERE bat sinatzen duen langile bakoitzaren portzentaia poltsikoratzen"

(ANGELA MUÑOZ, HOTEL-GARBITZAILEA)



LEIRE NARBAIZA

Aguazillak eta pistolak

Irakorri barri dot Eibarko udaltzain batzuek suzko armia eruatea eskatu dabela. Babes barik sentitzen dira, itxuria; eta uste dabe pistolak mokorrian erabilitta, herritarrok errespetu haundixagua izango detsegula. Harrigarrixena da sasoi honetan eskatzia, armagabetze girua bizi izan dogulako oin urtebete. Era berian, Estatu Batuetan be eztabaida betian ibili dira arma kontrolaren gaiñian. Gaztetxuak protesta bizixan jardun dabe gobernuak iskilubaimena zorroztu daixan. Horretara, esan geinke herriko poliziak haize kontra dabizela eskaera hori eginda. Delinkuentzia eta biolentzia maillak inguruko herrialdietakoak baiño bajuaguak, eta inoizkorik txikixenak ei diranian, udaltzaiñek sekula baiño babesbakuago sentitzen dira. Aittu ezinda nabil!

Oin denbora bat, honetaz jardun genduan Ermuko udaltzain pistoladun batekin, eta esan zeskun armiak arriskua baiño ez zetsala gehitzen edozein egoerari. Berak ahal izatera, lehengo moduan ibiliko litzakela; hau da, pistola barik. Arriskuak arrisku, esango neuke gerrikuan armia zintzilik eruatiak jendiarengandik urruntzen dabela udaltzaiña, irudixa gaiztotzen detsalako; aguazil biharrian, poliziago bihurtzen dabelako. *Aguazillago* izan daittezela nahi neuke, Europako polizia tasarik altuena dakan bazter honetan.

Galiziako Etxekuen jaixak asteburuan Urkizun

Gaur arratsaldian, 19:00etan hasiko dira As Burgas Galiziako Etxekuak antolatutako XXXV. Dia **das letras** Galegas jaixak, txosna zabaltziarekin batera. Arratsaldian Os Galaicos gaita taldiak kalejiria egingo dau eta umiendako animaziñua be egongo da, Aeiou Animaciones taldiarekin. Gabian, 22:00etan hasiko da goizalderarte iraungo daben dantzaldixa, Breixa Brand orkestakuekin. Bixarko egitaraua, barriz, goizetik hasiko da eta, bestiak beste, jolasak, herrikirolak eta Galizia zein Andaluziako dantzak eta musikiak beteko dabe eguna. Eta domekan euskal musika eta dantzarako tartia egongo da, Eibarko trikitilari eta Kezka dantza taldekuekin. **Egitaraua osorik ikusteko, begiratu agendan, 28. orrixan.**



asteko
73.400
datua

euro esleituko dittue Udal aurrekontutik, langabetu eta baliabide urriko herritarreri 200 euroko laguntasuna emoteko. Aurreikusit dabenez, 367 biztanleri lagundu leikixo kopuru horrekin. Eskaeriak maiatzaren 10etik ekaiñaren 15era bittartian egin leikez.

Daitekek lan-orientaziño zerbitzua jarri dau martxan Debegesan

Lanbideren zentru kolaboratzaillia dan Daiteke **Gizarte Aholkularitzak atzera be lanerako orientaziñorako zerbitzua** emongo dau Debegesaren egoitzan. Lan billa dabillen edozeiñek dauka euren gana jotzeko aukeria, "lan-orientaziñua jasotzeko, curriculum eta aurkezpen gutunak egiteko, lanerako alkarrizketak preparatzeko eta lan merkatuari buruzko informaziñua jasotzeko", bes-

tiak beste. Orientaziño zerbitzua bakarka, aurrez txandia hartuta, zein taldeka eskinduko dabe. Gaiñera, hillero taillarrak egingo dira (horren inguruko informaziñua Lanbideren webgunian emongo dabe argitara). Bulegua 08:30xetatik 16:30xetara zabaltzen dabe astelehenetik eguenera eta barixakuetan, barriz, 09:00etatik 15:00etara. Maiatzian emongo dittuen taillarrak honek dira: 23an, "Curriculum espresa" (euskeraz); 30ian "CV egokixa egitteko irizpidiak" (gaztelaniaz) eta 31n "Nola antolatu lana billatzeko" (gaztelaniaz). Taillarrak doakuak dira eta 10:00etatik 13:00etara bittartian egingo dira, Debegesaren egoitzan. Parte hartzeko aurrez izena emotia komeni da, 943 82 01 80 telefono zenbakira deittuta (zerbitzuaren arduradunekin kontaktuan ipintzeko eta aurrez hitzordua eskatzeko be zenbaki horretara deittu bihar da edo, bestela, maria.alonso@daiteke.com araceli.guerrero@daiteke.com helbidietara idatzi).





Hotela zabaldu dabe Ixuan

Zortzi logelako boutique-hotela zabaldu eben aurreko astian Ixuan. Lehengo eraikiñari eutsi detsen arren, goitik behera barriztatu dabe dana, bezerueri Kalamua mendi magalean lujuzko esperientzia eskintzeko asmuarekin. Jatetxiaren zati bat hotel bihurtu dabe, baiña jatetxiak be martxan segiduko dau eta, betiko moduan, salda eta txorizo egosixarekin gozatzeko aukeria izango da aurrerantzian be. Gaiñera, kanpua parrilla jartzeko asmua dake. Eraikin barruan egin ditten aldaketekin batera, sarbidian be obrak egin dittue eta automobillak oin atzeko partetik, Usartzara doian pistatik, sartzen dira aparkalekura.

Pensiñuen aldeko mobilizaziñua deittu dabe jubilauek bixarko



Eibarko jubilauek etxiak osatzen daben Biztu koordinadorekuak, Eibarko Duintasunak eta Eibarko Pentsiodunen Plataformakuak deittuta, bixar 12:00xetan kontzentraziño-manifestaziñua egingo da Untzagan. Mobilizaziñuan eskatuko dittuenen artian honek dagoz: 1080 euroko gitxieneko pensiñua, benetako KPI aplikatzia, Konstituziñuan pensiñuak blindatzia eta 2011ko Lan Erreforma bertan behera lagatzia, bestiak beste.

autuan

DENDARIXEN KANPAIÑA

Eibarko Dendarixen Alkartekuak kanpaiña barrixa ipiñi dabe martxan maiatzerako, "jendia denda txikixetan erostera animatzeko" asmuarekin. Hillian zihar alkarteko kidiak diran dendetan zezer erosten dabenak, 10 toki diferentietako zigilluak pillatuz gero, zuzenian 50 euroko erosketa-txartela eskuratuko dabe. Zigilluak markatzen juateko orrixa alkarteko edozein dendatan eskatu leike.

1988-KO KINTADIA

Urte horretan jaixotakuak ekaiñaren 2xan (zapatua) alkartuko dira euren jaixa ospatzeko: 12:00xetan Untzagan batu eta jarraixan, 12:15etan taldiaren argazkixa etarako dabe. Handik Ongi Etorri tabernaraiño juango dira gero, 12:30xetatik 14:30xetara bittartian zezer jan eta jokua egitteko. Bazkarixa 14:45etan hasiko da, Kasinuan, eta ondoren DJ batek musikia ipiñiko dau. Juan nahi dabenak 55 euro sartu biharko dittu Kutxako ES70 2095 5035 00 9117873492 kontuan (Oier Berrizbeitia da titularra), maiatzaren 25a baiño lehen (kontzeptu gisa izen-abizenak + "kintada" jarri bihar dira).

10 urte
zure entzumena
zaintzen

R.P.S. 253/14

J. Etxeberria, 13 TEL: 943 700 230



Audifonoak

Probatu doan / Konpromiso barik

%50eko
deskontua **2. audifonoan**



IDURRE
IRIONDO

Bihargiñen ahotsak entzun ziran kalian martitzenian

Aurten be bihargiñen eskubidien aldeko eskaeriak entzun ziran kalian, sindikatuak deittuta Maiatzaren Lehenian egindako manifestaziño eta mobilizaziñuetan. ELA, CCOO eta UGT-k hiriburuetan egin zittuen ekitaldixak, baiña LAB sindikatuak eskualde maillako mobilizaziñuak deittu zittuan eta, horren harira, Eibarren alkartu ziran Debabarreneko herrixetatik etorritak. Egurdixan manifestaziñuarekin ekin zetsen egunari eta, ondoren, herri-bazkarixa eta Ondarruko Biren taldiaren kontzertua egin ziran Untzagan.



Martitzeneko manifestaziñua Untzagara bidian. Silbia Hernandez

“Burua argi” taillarra egingo dabe lporuan astelehenian

Neuronak martxan jarri eta burmuña indartzeko ariketa praktikuak eskinduko ditue “Burua argi!” izeneko taillarrian. Adinduko Elena Iraolagoitiak zuzenduko daben taillarra astelehenetan, maiatzaren 7xan, 14an, 21ian eta 28xan izango da, 17:00-etatik 18:30xetara, lporuako jubilaueen egoitzan. Doan izango da eta interesa dakan edozeiñek izango dau parte hartzeko aukeria.



Burgosera exkursiñua antolatu dabe Untzagako jubilauek

Untzagako jubilau etxeuak Silos-Covarrubias (Burgos) ezagutera juateko txangua antolatu dabe maiatzaren 15erako. Goizeko 08:00etan urtengo da autobusa, Ego-Gaiñetik eta exkursiñora doiazanak, bestiak beste, Santo Domingo de Silos monasterixo ezaguna ikusiko dabe. Bazkarixa, barriz, Covarrubiasen dagan Tiky jatetxian izango da. Jubilau etxeren bateko bazkide guztiak dake izena emateko aukeria, Untzagako buleguetan (27 euro).



PETRA LENIZ ARGOITIA 1. URTEURRENA (2017-V-6)

*ZURE irribarre eta samurtasuna
betirako izango dira
GURE ARTEAN.*



Santa Kurutzeko jaixak ospatuko dittue bixar eta etzi

Eguenian izan zan Santa Kurutz egunaren inguruko jaixak bixar eta etzi ospatuko dittue Gorosta eta Mandiola auzokuak, horretarako preparau dabon programiari jarraituta. Zapatu goizian, 10:30xetan kanpaiak iragarriko dabe 11:00etan Santa Kurutzeko ermitan hasiko dan meza nagusixa eta, horren atzetik, hamaiketakua, Unai Andonegi eta Oier Baltzola trikitalarixen saiua, haurrentako jolasak, herri kirolak, bazkarixa, erromerixia eta arratsaldian Arrateko frontoian jokatuko dabon esku pilota txapelketia aillegauko dira. Domekarako, barriz, Santa Kurutzera igoeria antolatu dabe, 09:45etan Urkizuko iturritik abiatuta. Jendia parte hartzera animatzeko, izena ematen dabenen artian sarixa zozketatuko dabe (izen emotia 10:00etan hasiko da). Horrekin batera, atzera be mezia ospatuko dabe ermittan eta, ondoren, piskolabisa egongo da, Mugi Panderoa taldekuak girotuta. Kezka dantz taldekuak eta Usartza txistulari bandakuak soka-dantzia egingo dabe eguardixan eta bazkaltzeko ordurako agurtuko dittue jaixak (egitarau osua 28. orrialdian, agendan dakazue).



Badira danon gustorako ekitaldixak. Maialen Belaustegi



Iazko finaleko irudia, Amesti bigarren edizioko irabazlearekin.

Gin Tonic lehiaketako finala jokatuko da gaur Untzagan

Euskeraz Primeran! Gin Tonic lehiaketia azken txanpan sartu da eta gaur erabagiko dabe aurtengo irabazlia zein dan, Untzagan jokatuko dan finalian. Illuntzeko 20:30xetan hasiko da eta hiru finalistak, O'Jays, Koskor eta Ametsa tabernetakuak plazan preparau biharko dabe euren gin-tonica, jendiaren aurrian. Bixen bittartian, Oihan Vegak musikarekin girotuko dau ekitaldixa eta amaieran sarixak banatuko dittue. Tabernarixak ez eze, botua emon dabenen artian zozketatu dabon asteburu baterako egonaldixa irabazi dabon Josune Amilibiak be orduantxe jasoko dau premixua.

Iruñeko sexu-erasuaren inguruko epaiaren kontra

Iruñeko taldeko sexu erasuaren gañian aurreko astian emondako epaiak jende mordua hasarratu dau eta, epaiarekin ados ez daguezela adierazteko, eguen arratsaldian eta barixaku eguardixan mobilizaziño jendetsuak egin ziran herri askotan, baita Eibarren be. Eguen arratsaldian eibartar mordua batu ziran Untzaga plazan eta barixaku eguardixan, barriz, Txaltxa Zelaixan, epaitegi parian konzentraziñua egin zan. Horrekin batera, Udaleko Bozeramaillien Batzordiak sententziaren inguruan adierazpen instituzionala egin dau. Adierazpenak jasotzen dabenez, "Udal honek eta Eibarko herrixak bere babes, maitasun eta alkartasuna adierazten detse biktimari eta bere famelixa eta ingurukueri". Horrez



gain, "sententziak jasotzen dabonarekin gure erabateko desadostasuna" adierazten dabe, "bereziki, pasautakua sexu-abusu jarraitu gisa aitortu dabelako. Zentzu horretan, gure babesa erakutsi nahi detsagu aittatutako sententzia inpugnatu edo inpugnatuko dabon erakundieri".

NEREA GALLASTEGI AIZPURUA
(1976-IV-21/2015-V-5)
III. URTEURRENA



"Gure bihotzetan jarraitzen duzu"

ZURE FAMILIA



moda



arkitektura

mikel solas -MODA DISEINATZAILEA-



Eskerrak emanez aukera eskaintzeagatik

Oraingo honetan, normalean lantzen dudan gaitik urrunduko naiz, Eibarren 25 urte bete dituen ...eta kitto! Eus-kara Elkarteari eta bere aldizkariari buruz hitz egiteko. Ospatzeko arrazoiak baditugu, zailantza barik!

Egia da ...eta kitto!-n modari buruz idaztea dagokidala; hori agindu zidaten-eta. Baina oraingoan beste ikuspegi bat erakutsi nahi dut, eta irakurleari galdetu nahi diot: zer izango litzateke Eibar, astekari hone-

tan agertzen diren albiste, pertsona eta lekurik gabe? Astekariari esker, astero askorentzako ezezagunak izango ziren pertsonak ezagutzen ditugu orain dela urte mordo batetik hona. Jende askori egiten duena erakusteko aukera eskaini dio astekariak, elkarrizketen bitartez edo nahi dutenari buruz idazteko espazioa eskainiz, nire kasuan izan den bezala.

Urte hauetan Eibar modernizatzen eta hazten joan da, eta baita astekaria ere, atal berriak

eta proiektu berriak sortuz (Txikitto, adibidez), momentu bakoitzean izandako premien arabera.

Moda ez litzakete ezer izango bere kide guztiak gabe (diseinatzailea, jostuna eta patronista), eta Eibar ere ez genuke ulertuko bere ...eta kitto!-rik gabe.

Hori dela-eta, bertako kide guztiak zoriondu nahi ditut (langileekin batera, baita irakurleak ere), eurek egiten baitute posible proiektuak aurrera jarraitzea. Bide batez, eskerrak

eman nahi dizkizuet aldizkarian noizean behin nire ideiak adierazteko aukera emateagatik eta nire lana ezagutzera ematen laguntzeagatik.

25 urte horiengatik... Zorionak! Urte askotarako!

Instagram: [solas_design](#)
Facebook.com/solasdesigns

nagore fernandez



Betidniko arazoa izanda ere, emakumeei nolabaiteko babesa bermatzearen beharra zoritxarrez ospetsua den hizketagaita da azkenaldian. Feminismoaren ahotza gero eta ozenago entzuten ari dela dirudi eta noizbait beharrezkoa izateari utziko diola amestu arren, gaur egun ukaezina da gizarte bezala neurri serio eta irmoak hartu beharrean gaudela, gure elkarbitza baldintzatzen duten alderdi guztietan.


Denontzako hiria

Ez naiz legeen aldaketari buruz arituko, ez bainaiz batere aditua horrelakoetan. Baina arkitektura edo urbanismoari lotuta ere badago zer egin; bota ditzagun, beraz, pare bat ideia:

Kale ilunen argiztapena hobetzea da askori bururatuko zaigun lehen puntua. Ez da ideia txarra, sentitzen dugun ikara batzuetan irrazionala izan badaiteke ere denok dakigu oso ohikoa dela. Era berean, orain dela gutxi entzun dugu hiriburueta-ko autobusek gaueko ordutegian geralekuetatik kanpo jaisteko aukera emango dutela aurrerantzean. Neurri onak izan daitezke, bai. Baina beldurra benetan deusezteko oinarrietara jo beharra dago, sustraietara.

Hiria denon beharretara eraldatu beharko litzateke, errespetuz, elkarri entzunez. Hala, urbanismo eta arkitektura fe-

ministaren aldeko elkarteek beste proposamen batzuk dituzte, gizartea ez baita kolektibo estankoz eratzen; emakumeak ere oso bestelakoak baikara elkarrekiko eta gizartearekiko ditugun gogo eta beharretarako. Adibidez, prozesu partehartzaileen bitartez, bakoitzak bere inguruarekin duen harremanari lotutako eskaerak egin ditzakeela diote. Gazte, heldu eta zaharrak, ekonomia, sexu, ideologia edo erlijioaren araberako sailkapenetatik haratago, gure hirian aske eta eroso sentitu gaitezen.



Herriko balkoi dotoreenak sarituko dituzte

Herriko balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketa antolatu du Eibarko Udalak Debegesa Garapen Agentziarekin elkarlanean. Lehiaketa eibartarrentzako da eta Eibarko “ingurumen kalitate eta itxura hobetzea” du helburu. Lehiaketan parte hartzeko beharrezkoa da aurrez izena ematea, eta maiatzaren 15ean egongo da horretarako aukera Pegoran, etxe guztietara banatu den inprimakia bete ondoren. Inprimakia udal webgunean ere eskuragarri egongo da. Epaimahaiak uztailean zehar ikusi eta baloratuko ditu balkoi eta leiho parte-hartzaileak, lore apainteta ederrenak saritzeko.

Landareei eta loreei garrantzia emanez, herrigune atseginagoa eta ederragoa lortu eta, bide batez, herritarren artean landareak zaintzeko ohitura zabaldu nahi dute antolatzaileek. Sariei dagokienez, herri mailako bi sari izango dira, 150 eurokoa bakoitza, Eibarko Merkataritza Gune Irekiko kide diren saltokietan erabiltzeko. Gainera, eskualde mailako beste sari bat emango da, 200 eurokoa, irabazleak bere



Herri eder eta atseginagoa lortu nahi da balkoi lehiaketa honekin.

herriko saltokietan erabil dezan. Baldintzetan azaltzen denez, “balkoi edo leiho ederrena sarituko da; horretarako, landare edo lore biziak erabiliko dira apaingarriztat, eta kaletik ikusteko aukera izan beharko du epaimahaiak”. Parte-hartzaileek balkoiak eta leihoak edertzeko aukera izango dute, betiere ingurua errespetatuz (auzokideak, kalea...) eta segurtasuna bermatuz. Epaimahaiak konposizioaren originaltasuna eta sormenez gain, diseinua, konplexutasuna eta apaintetaren kalitatea eta harmonia baloratuko ditu.

Ekimen honi buruzko informazio gehiago eskuratu nahi dutenek 943 70 84 08 telefonora dei dezakete edo ingurumena@eibar.eus helbidera idatzi. Gainera, lehiaketaren oinarriak udal webgunearen Ingurumena atalean eskuragarri izango dituzte. Epaimahaiak uztailean zehar ikusi eta baloratuko ditu parte hartzen duten balkoi eta leihoak, lore apainteta ederrenak saritzeko. Eibarren ez ezik, Deban, Elgoibarren eta Ermuan ere egingo da balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketa.

Euskeraren aldeko olatua maiatzaren 19an ailegatuko da Eibarrera

Tantanez Tantan, Eibarren euskeraz blai!” goiburu hartuta maiatzeko hirugarren zapatuan ailegatuko zaigu herrira euskeraren olatua. Aurreko edizioetan baino ordubate lehena, eguerdiko 12:00etan abiatuko da olatua Urkusuko iturritik. Gantxila urez bete eta eskuz esku, giza katean, Untzagaraino eramango dugu, herria zeharkatu ostean.

Eibarko euskalgintzako taldeak hilabeteak daramatza ekitaldia antolatzeko bilerak egiten. Martitzenetan elkartzen dira Arrate Kultur Elkartean, ekitaldia goitik behera lotzeko. Aurten, gainera, izango da berritasunik, udazkenean Eibarren antolatuko den Euskaraldiarekin bat egingo duelako olatuak. 13:00etan gantxila Untzagara ailegatu eta gero aurkeztuko da Euskaraldia gure herrian.

Baina aurretik, maiatzaren 8an, martitzena, aurtengo “Tantanez Tantan” aurkeztuko da Eibarko Bizikleta Plazan, 18:45ean, eta Euskalgintza osatzen duten taldeek dei egiten die herritarrei: “ekitaldi jendetsua egin nahi dugu, eibartarren berotasuna eta babesa sentitu nahi dugu, eta horregatik dei egiten diegu maiatzaren 8ko aurkezpenean egon daitezen”. Ekitaldi horretan aurkeztuko da aurtengo kartela eta gantxilaren irudia daraman peginak ere banatuko dira.




VIRGINIA ARAKISTAIN: Laino ilunak.

Argazkiek beteko dituzte herriko erakusketa areto guztiak GAURTIK AURRERA

Argazkilaritza Maiatzean egitarauaren harira, hasi berri dugun hilabete honetan irudiak aparteko protagonismoa izango du. Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik, egile ezberdinen argazkiek herriko erakusketa areto guztiak beteko di-

tuzte gaurtik hasita. Beste urte batzuetan egindakoari jarraituko diote antolatzaileek oraingoan ere: Portaleko erakusketa aretoan hasiko dute ibilbidea, datozen egunotan han erakutsiko dituzten lanen erakusketak inauguratuta eta handik areto batetik bestera erakusketak zabaltzen jarraituko dute, *“ahal dugun guztiak behintzat. Eta denetara sasoiz ailegatzen ez bagara, ba datozen egunetan jarraituko dugu, denetara bisita egin arte”*. Ez da erronka makala gero, gaur arratsaldean ia aldi berean berderatzi erakusketa zabalduko dituzte-eta: Eulalia Abaitua, Oskar Manso eta Felix Marban argazkilarien lanak biltzen dituzten erakusketak Portalean; Deporrek Argazki Taldeko kidea den Virginia Arakistainen lanak, berriz, Topalekuan ikus daitezke; Eibarko Klub Deportiboko beste kideen erakuske-



Euskal Herriko argazkilaritza esparruan aitzindaria izan zen Eulalia Abaituaren lan bitxiak ikusgai daude Portalean hilaren 27ra arte.

Erakusketak

PORTALEA (Eulalia Abaitua, Oskar Manso, Felix Marban).
Maiatzaren 4tik 27ra.
Martitzenetik domekara,
18:30etik 20:30era.

TOPALEKU (Virginia Arakistain).
Maiatzaren 4tik 27ra.
Astelehenetik barixakura,
19:00etatik 21:00etara.
Zapata eta domeketan,
12:00etatik 14:00etara
eta 19:00etatik 21:00etara.

EL AMBIGÚ (Eibarko Klub Deportiboa).
Maiatzaren 4tik 31ra.
Astelehenetik domekara,
16:00etatik 21:00etara.

PORTALEA TABERNA (Eibarko Klub Deportiboa).
Maiatzaren 4tik 31ra.
Astelehenetik domekara,
10:00etatik 21:00etara.

KLUB DEPORTIBOA (Argizaiola Saria).
Maiatzaren 4tik 31ra.
Astelehenetik barixakura,
17:30etik 21:30era.

UNTZAGAKO JUBILATU ETXEA (Nazioarteko Gipuzkoa Saria).
Maiatzaren 4tik 27ra.
Astelehenetik domekara,
20:00etatik 21:30era.

EL CORTE INGLÉS (Miguel Parreño).
Maiatzaren 4tik 26ra.
Astelehenetik zapatura,
11:00etatik 21:00etara.

ta kolektibo bana, berriz, El Ambigú eta Portalea tabernetan egongo dira; Klub Deportiboaren tabernan, Argizaiola Sariaren azken ediziora aurkeztutako lanetako batzuk bildu dituzte; eta garrantzi handiko lehiaketekin jarraituta, Untzagako Jubilatutako Nazioarteko Gipuzkoa Sarira aurkeztutako beste lan batzuk erakutsiko dituzte; eta erakusketabilbidea ixteko, El Corte Ingleseko erakusketa aretoan Miguel Parreñoren argazkiak egongo dira ikusgai.

Munduko argazkiak Gonzalo Azumendirekin

Erakusketak ez ezik, beste-lako ekitaldiek ere osatzen dute egitaraua eta, tartean, egun guztirako tailerra egingo da maiatzaren 12an (goizeko 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara), Portalean. Aurten, tailerra ematera Gonzalo Azumendi, 30 urtetik gora mundua bere kamararekin hartutako irudiekin erakusten daramatzan argazkilaria etorriko da. Bere argazkiak bidaietan espezializatutako argitalpen ospetsuenetan (El País, El Mundo, Viajar, Viajes National Geographic, Lonely Planet, UNESCO...) eman dituzte argitara eta, antolatzaileen berbetan, *“tailerra motibazio, jakingura, ikaste eta umore uholdea izango da... esperientziak eta teknikak kontatuz, anekdotekin barre eginez ezinezko argazkia lortzeraino, ideiak sortuz... Parte hartzen dutenek ederto pasatuko dute, asko ikasteaz gain”*. Oraindik toki batzuk daude betetzeko. Beraz, norbaitek izena eman nahi badu oraindik badago aukera, argazkilaritza@deporeibar.com helbidera idatzita (20 euro balio du).



Gonzalo Azumendiren tailerrera oraindik badira toki batzuk. Bidaietan espezializatutako argitalpen ospetsuenek kaleratu dituzte bere irudiak.

Jaio, erosi, hil. Kontsumismoaren gizartean bizi gara, kontsumismoak inguratzen gaitu eta zaila da (edo ezinezkoa) kontsumitu gabe bizitzea. Jakiak, erropak, gauiak, energia, bankuko dirua... aukera ugari ditugu zer eta nola kontsumitu nahi dugun erabakitzeko, eta erabaki horrek modu batean edo bestean eragin dezake gizartearen eta munduaren garapenean. Egoaizia Gobernuz Kanpoko Erakunde (GKE) eibartarrak kontsumo arduratsuaren aldeko apustua egiten du eta hainbat ekintza antolatu ditu maiatzean gai horren inguruan, tartean argazki lehiaketa.



Alaia Berriozabal Egoaiziako kidea. Ekhi Belar

Kontsumo arduratsuaren irudi, garapen jasangarriaren eredu

Argiak itzali argirik behar ez dugunean, txorrua itxi dutxan jaboia igurtzen dihardugunean, supermerkatu poltsa berrerabilgarriak eraman, gauzei bizi berria eman, etxeko txikiei birziklatzen irakatsi, '0 kilometroko' produktuak erosi, kotxea partekatu, energia berriztagarriak erabili, produktuen etiketak begiratu erosi aurretik (agroekologikoak, jasangarriak, bidezko merkataritza...)... hainbat gauza egin daitezke kontsumo arduratsuaren alde, denon (edo askoren) esku dauden ekintzak. Egoaiziak akzio guzti horiek eta kontsumo arduratsuaren inguruko salaketa, aldarrikapen eta ereduzko ekintzak irudikatu nahi ditu lehenengo aldiz antolatu duen argazki lehiaketan.

Maiatzaren 13an eta ekainaren 3an Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna eta Ingurugiroaren Nazioarteko Eguna ospatuko dira, hurrenez hurren. Lotura duten bi egun, kontsumo arduratsuak batean eta bestean eragina duelako. Horregatik, Egoaiziak hainbat ekintza antolatu ditu. "Ekainaren 3an kontsumo arduratsuaren inguruko hirugarren azoka antolatuko dugu, baina aurretik kontsumo arduratsuaren lehen argazki-lehiaketa antolatu dugu herri-tarren parte hartzea sustatu eta gai honen inguruan duten ikuspegia partekatzeko", adierazi digu Alaia Berriozabal Egoaiziako kidea. "Denok gara kontsumitzaileak eta norberak duen boterea aprobetxatzea da

asmoa. Gainera, bakoitzak kontsumo arduratsuaren inguruan duen ikuspegia jakiteko balio izango digu lehiaketak".

Ikuspegi zabala dago kontsumo arduratsuaz dihardugunean. "Bidezko merkataritza kontsumo arduratsuaren zati bat da, baina ez da hori bakarrik". Gure egunerokoan egiten ditugun hainbat ekintza zehazten ditu Berriozabalek, edozein kontsumo jarduerak eragina duelako. Nola kontsumitu, hori da gakoa. "Zer kontsumitzen dugun jakin behar dugu, kontzientek izan behar dugu eta kontsumitzen dugunarekin zer bultzatzen dugun jakin behar dugu". Izan ere, Berriozabalen berbertan istorio bat dago kontsumitzen ditugun gauzen atzean eta horiek jakitea edo, guxtienez, nolakoak izan daitezkeen irudikatzea berebizikoa da.



Produktuen B aldea

Produktuen atzeko istorioa, atzeko alde, alde iluna. Kontsumitzaile askok informazio gosea daukate, zer kontsumitzen duten jakin nahi dute eta horren eskubidea aldarrikatzen dute (eta lortu dute, neurri batean). Hazi egin da etiketen presentzia hainbat produktutan. Produktuen edukia, jatorria eta bestelako zehaztapenak agertzen dira letra txikian, baina liburu bat beharko litzateke produktu askoren atzeko istorioak ezagutzeko.

Gaur egungo gizartean gailentzen den kontsumo eredu eta garapen ekonomikoaren eredu ez dira jasangarriak Berriozabalentzat. "Ez ingurugiroaren ikuspuntutik (aztarna ekologikoa, klima-aldaketa...), ezta arlo soziala kontuan hartzen badugu ere". Lehen Munduko kontsumo erritmoak planetari eragiten dion kaltea azpimarratzen du Egoaiziako kidea eta kontsumitzen ditugun produktu gehieneko ekoizleek eragiten dituzten kalte sozialak azaleratzen ditu. "Enpresa handiak, multinazionalak, zerga-tasa baxuenak eta justizia bignunak dituzten herrialde-tara joaten dira euren produktuak ekoiztera, eta horrek sortzen duena kontuan hartu behar dugu".

Enpresa handiak, multinazionalak, berba handiak kontsumitzaile arrunt batekin alderatuz, baina Berriozabalen iritzi, "pentsatzen duguna baino askoz gehiago dago gure esku". Gauza txikiak izan daitezke,

eguneroko ohitura txikiak aldatzea edota jokabide arduratsuagoak hartzea. "Hainbat pauso eman daitezke gure esku dauden erabakiak kontsumo arduratsuen alde hartzeko". Adibidez, erosi nahi dugun produktu hori benetan beharrezkoa den ala ez pentsatzea, edo etxean daukagun beste edozer gauza birziklatu edo berrera-biltzea. Pauso txikiak, baina kontsumo arduratsuen bidean emandako pausoak. "Bestetik, umeei ohitura onak irakatsi behar zaizkie; erosketak egitera supermerkatu handi batera joan gaitezke edo etxe alboan daukagun dendara; eta produktu lokalak, baserrikoak, '0 kilometrokoak'... kontsumitu ditzakegu, Zeelanda Berri-tik kiwi bat ekarri beharrean".

Sari sozialak

Argazki lehiaketan parte hartzen dutenek euren egunerokoa bizi dutena irudikatze-ko aukera izango dute. "Adibidez, zabor organikoaren ontzi bat betetzen dudan bakoitzean plastikozko bi ontzi betetzen badituz, plastiko gehiegi erabiltzen dugula salatu dezaket. Eta alderantziz, ekintza egokiak edo eredu-garriak irudikatu daitezke jardura egokiak sustatzeko". Jendearen kontsumo ohiturak ikusarazi eta bultzatu nahi dira egitasmo honekin, izan ere, lan asko dago egiteko kontsumo arduratsuen inguruan, baina Berriozabalek us-te du jendeak gero eta kontzientzia haundiagoa duela gai honen inguruan.

Egoaziak kontsumo lokala, agroekologikoa, bidezko merkataritza eta banku eti-



koa bultzatzen ditu. Fiar banku etikoko ki-deak dira eta ohiko kontsumo aukeretatik kanpo dauden beste baliabide batzuen berri ematen dute. "Energia dagokionez, adibidez, Goiener eta antzeko kooperati-bak daude, eta berdin beste kontsumo ar-lo batzuetan". REASeko (ekonomia alter-natibo eta solidarioen sarea) kidea da Ego-aizia. Finantza etikoa, merkataritza sozia-la, bidezko merkataritza, kontsumo ardu-ratsua, elikadura subiranotasuna... horiek dira REASen oinarriak eta hainbat erakun-de, kooperatiba eta talde osatzen dute. "Era askotako hornitzaileen zerrenda da-go. Egoaziak, adibidez, webgunea berri-tuko du eta zerrenda horretara joko dugu bertako erakunde batek lana egiteko. Sa-re horretan egoteak berme bat ematen du". Badaude alternatibak ohiko kontsu-mo ohituretatik aparte, baina Berriozaba-lek onartzen du errazagoa dela esku-es-kura dagoena kontsumitzea (supermerka-

tu handiak, interneteko denda erral-doiak...). "Guk proposatzen duguna ez da kontsumo errazena, baina kontsumitzeko beste alternatiba bat da".

Argazki lehiaketaren sariak ere bide ho-rretan doaz. Ez dira milaka euro banatuko argazki irabazlearentzat, ez dira luxuzko bi-daiak oparitu. "Kontsumo arduratsua bultzatu edo bizitzeko esperientziak es-kainiko ditugu". Kontsumo arduratsuen inguruan sentsibilizatzea da helburua eta sari-ek logika hori jarraitzen dute. "Zertara-ko banatu mila euroko saria? Berriz ere kontsumo-joera horretan sartzeko?". Hori bai, Berriozabalek argitzen du eurak ez daudela kontsumitzearen aurka. "Guk ez dugu esaten kontsumitzea txarra denik, ja-kin behar duguna da zer kontsumitzen du-gun". Izan ere, norberaren kontzientzia-z gain, gauza garrantzitsuak daude jokoan. "Gure garapena gure ekintzen arabera-koa izango da".

Senperen

PREFOSTA
 Herri Urrats 2018

maiatzak 13

herri urrats

IRTEERA AUTOBUS ZERBITZUA 12
 09:00etan Ego-Gainetik

BUELTA
 18:30ean

J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte ...eta kitto! Euskara Elkarte

f M Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR	ELGOIBAR
Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27	Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra
 ☎ **943 20 19 51** www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

Naroa Kareaga (zaldi-zaletua)

“Zaldiarekin jauzi egitea da gehien gustatzen zaidana”

Eibarko kaleetan trikitixarekin ikusten ohituta bagaude ere, musika ez da Naroa Kareaga eibartarraren zaletasun bakarra. Betidanik gustatu zaizkio animaliak eta zaldiekin duen harremana 11 urte zituenean hasi zen. Aurten 18 urte beteko ditu, Batxilergoko 2.maila ikasten dihardu eta astero denbora hartzen du hipika eskolara joateko eta gehien gustatzen zaiona egiteko. Psikologia ikastea erabaki du, animalien psikologian espezializatzeko aukera ematen diolako.

- Nola hasi zinen hipika praktikatzan?

Txikitatik, betidanik gustatu zaizkit animaliak. Nire lagun batzuk zaldian ibiltzen ziren eta gurasoekin kanpora joaten ginean batzutan pasioak egiten genituen. Gurasoei beti eskatzen nien, baina, garestia izateaz gain, Eibartik kanpora joan behar duzu beti. Hainbeste aldiz esan eta gero azkenean hipika batera eraman ninduten probatzera. Oso emozionauta joan nintzen. Pentsatzen nuen hor geldituko zela, baina ez, astero hasi nintzen joaten ikastera, lehenengo urtean anaiarekin batera eta gero neu bakarrik. Lehenengo bost urteak Berrizen egon nintzen, baina jabez aldatu zuten eta beste hipika batean nago orain, Iurretako Zelai Alai-en.

- Zelako gauzak ikasten dira zalditegian?

Hasieran, oinarrizkoena ikasten da (pau-soa, trosta, galopa). “Galopeak” izeneko azterketa batzuk egiten dira, eta maila desberdinak daude. Lehen hirurak hastapenekoak izaten dira eta 4tik 7ra profesio-

nalak. Galopa kontrolatzen duzunean eta zaldi gainean ibiltzen ikasten duzunean 3. mailan saltoekin hasten zara. Azterketek alde teorikoa eta praktikoa izaten dute. Lehenengo mailetan zaldiaren kapak, aukia- ren zatiak, mantak jarri, zaldia nola tratatu, konexioa nola lortu... oinarrizko gauzak ikasten dira. Azken finean hipika ez da zaldia hartu, igo, ibili eta kitto! Joaten zarenean, zaldia kortan edo zelaian egoten da. Zeuk bakarrik joan behar duzu, zaldia hartu, eraman, garbitu, orraztu, apatxak garbitu, aukia eta burkoa jarri... Zaldia oso animalia beldurtia da, konfidantza hartzen joan behar duzu.

- Oinarri sendoa lortu eta gero orain beste maila batean zaude eta disziplina desberdinak lantzen dituzu...

Aurreko zalditegian *Laugarren galopea*, perfekzionamendukoa egon nintzen presatzen, baina orduan hipikaz aldatu nuen eta azterketa alde batera utzi nuen. Dena dela, selektibitatea eta gero, konbokatoria



ateratzen bada, uda honetan aurkezteko asmoa daukat. Maila honek beste prestakuntza teknikoagoa eta ezagutza maila altuagoa eskatzen du, tendoiak, zaldien arazoak... Disziplina desberdinak ikasten dira: doma klasikoa, saltoa, pista eta krossa. Saltoa da gehien gustatzen zaidana, baina danetik egiten dut, gustora nago arlo desberdinetan.

- Zelako animalia da zaldia?

Zaldia animalirik beldurtienetakoa da. Jakin behar duzu ez dela jostailu bat eta konfidantza lortzea ezinbestekoa da. Zaldiak ez dizu inoiz eraso egingo. Bere defentsa nagusia arineketan egitea da. Zaldi bakoitza mundu bat da eta bakoitzak bere izaera du, horregatik da inportantea zaldi desberdinekin ibiltzea. Gainera, terapia moduan asko erabiltzen da hipika, arazoak edo zailtasun bereziak dituztenek konfidantza lortzeko asko erabiltzen da eta horretarako prestatuta dauden zaldiak egoten dira. Niretzako hipika hobby bat da, nire pasioa. Ez da bakarrik zaldian ibiltzea, zaldiekin egoteak asko ematen dit. Hipika, trikitixarekin batera, egiteari utziko niokeen azken gauza da.



Giro eta bertso saio aparta Gaztetxean

Aurreko barixakuan jokatu zuten Plazatik Gaztetxera txapelketako finalerdia Eibarko gaztetxetxean Ander Zulaika, Oier Etxeberria, Mikel Iturriotz, Urko Arregi, Ane Peñagarikano eta Jokin Bergara bertsolariek, baina saioaren aurretik Gazte Asanbladako ki-deek antolatutako afarian 50 bat lagun elkartu ziren. Saioari buruzko kronikan jaso dutenez, "saioa hasterako jende gehiago hurbildu zen gaztetxera, kantatzeko plaza polita osatuz bertsolarien-tzat. Argi gorriak atzean jarririk, Manu Goiogana aurkezlearen aipamenekin igo ziren bertsolariak oholtzara banan-bana, jendearen txaloen artean. Ohi bezala hasi zen saioa, bertsolarien agurrekin, publikoa eta bertsolariak eurak kokatzeko aukera izateko. Zortziko nagusian hasi zen saioa, txukun jardun zuten bertsolariek eta elkarri erantzuneko ofizio itxurosoak geratu ziren. Zortziko txikian, batzuk biziago besteak motelago, baina jendearen algarak ateratzeko gai izan ziren kantuan zebiltzanak. Puntu erantzunetan, bereziki aipagarria izan zen Urko Arregik Manu gai-jartzailearen puntuari



Maialen Belaustegi

emandako erantzuna, nonbait goia jo bazuen saioak, une horretan izan zen, txalo zaparrada jaso zuen Urkok bere irteerarekin. Kopletan ere bizi eta elkarri erantzunez aritu ziren. Aipagarria Oier Etxeberriak, Urko Arregik eta Jokin Bergarak osatu zuten ariketa, tatuajea egin eta astebetara damututa, tatuajea kentzera joan diren hiru lagunenez paperetik. Grazia egitea lortu zuten eta gustora en-

tzun zituzten entzuleek elkarri esandakoak. Saioko azken ariketan bakarka aritu behar izan zuten bertsolariek. Gai irrikiak izan ziren orokorrean eta bide ezberdinak asmatu zituzten, agian hau izan zen gorabehera gehien izan zuen ariketa, baina ale txukunak ere entzun ahal izan ziren".

Bertsolariek lanak amaituta, epaileek emandako puntuek Jokin Bergara, Oier Etxeberria eta Urko Arregi maiztaren 12an Ondarruan jokatu den finalean kantatzeko sailkatzea erabaki zuten. Honela geratu zen sailkapena: Jokin Bergara (236 puntu), Oier Etxeberria (234,5 puntu), Urko Arregi (230,5 puntu), Mikel Iturriotz (219 puntu), Ane Peñagarikano (203,5 puntu) eta Ander Zulaika (202) puntu. Gauzak horrela, zapatuan Deban egindako beste finalerditik sailkatutako hiruekin batera, eurak arituko dira 7 gaztetxeren artean antolatzen den herri txapelketa honen finalean kantari.



M.B.



● tartak
● enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



etxera
eramateko
janaria

Bidebarrieta, 39
943 845503

ETXEO
JAKI DENDA

baratzre

Udaberrirako



modan

**BEHAR DUZUN
GUZTIA**

el vestidor

Errebal, 14

688-811434



T. Etxebarria, 5
943 53 94 93

Zuloagatarren, 1
943 53 67 64



XARE

Emakume
moda

J. Etxebarria, 2
943 20 15 51

GU BY

*Gusto eta adin
guztietako moda*



San Agustin, 3
943-204181



kopinamoda




ume eta gazte
Kopina
moda

Birjiñape, 1
943 20 28 33

Guby

Zuloagatarren, 9
943 20 12 40



LACOSTE Levi's FRED PERRY
eta beste marka gehiago

Ego Gain, 4
943 57 31 96

Berria!

Pello Osoro eta Delteco garaile Erandion

Eibar Delteco taldekoek proba bikaina egin zuten 21. Erandioko Duetloian eta, Pello Osoro 57'22"ko denborarekin helmugan lehenengoa izateaz gain, Pello Berrizbeitia (14. postuan, 1h02'01") eta Pablo Zabalarekin (23., 1h02'30") osatutako hirukotea nagusi izan zen taldekako sailkapenean. Roberto Gartzia laugarren taldeki-deak 33. postuan amaitu zuen.

Eibarko taldeko beste bi ordezkari Torre de Mar-eko XXVI. triatloian hartu zuten parte, postu onak eskuratuz: Joseba Tamayok half lasterketan (1.900 metro igerian, 81'2 km bizikleta gainean eta 20'7 km antxixketan) 9. amaitu zuen, 4h23'40" denbora eginez; eta Maialen Zamakolak 8. egin zuen sailkapen orokorrean eta bigarrena 23 urtetik azpikoetan olinpiko lasterketan (1.500 metro igeri, 40'6 km bizikletan eta 10'7 antxixketan), bi ordu, 57 minutu eta 23 segundoko denborarekin.



Maialen Zamakola bigarren izan zen 23 urtetik azpikoetan mailan.

Waterpoloko Gipuzkoako selekzioaren bizkarrezurra eibartarrez osatuta

Anton Akizu, Xabier Egidazu, Eneko Treviño eta Jon Treviñok Gipuzkoako selekzioaren jokatu dute azken zubian Zaragozan. Bestalde, gizonezkoen Euskal Herriko 1. Mailako play-offetako bigarren partiduan ere Urbat Urkotnikoek amore eman behar izan zuten Portu- galeteko Nauticaren aurrean eta Orbean 11-13 galdu zuten; iazko moduan, eibartarrak orain 3. eta 4. postuak erabakitzeko lehian izango dira.



Jubenilen taldeak, berriz, partidu erraldoia jokatu zuen, Askartzari 3-9 irabazita, eta indartsu jarraitzen du uztailean jokatuko den 1. mailako Espainiako txapelketari begira. Kadeteen taldeak, azkenik, ez zuen bere irudi onena eskaini eta 13-7 galdu zuen Sestaon.

ASTEBURUKO AGENDA

FOBALLA

1. Maila

Girona - Eibar (bihar, 13:00)

Emakumezkoen Euskal Kopa

Eibar - Pauldarrak (etzi, 12:30)

2. B Maila

Lealtad - Vitoria (etzi, 12:00)

Emakumezkoen Lurralde Maila

Lagun Onak - Eibar (etzi, 17:00)

Erregional Gorengo Maila

Eibar Urko - Tolosa (bihar, 15:30)

1. Erregionala

Zarautz - Urki (bihar, 15:30)

Eibartarrak - Arizmendi (etzi, 15:45)

ESKUBALOIA

1. Nazional Maila

Somos Eibar - Barakaldo (bihar, 19:00)

Euskal Ligarako igoera fasea

Haritza - Egia Kosko (bihar, 16:45)

HIRU-TXIRLO

49. Gipuzkoako Txapelketa

Soraluzeko San Andresen (bihar, 17:00)

AGENDA OSOA GURE WEB ORRIAN



Emakumezkoen lehen taldeak indartsu hasi zuen Euskal Kopa Aurrera de Vitoria menperatuta (0-4).

Bihotza Azpiri eta Arlindo Almeida omenduko dituzte Bolari Egunean

Hilaren 26an Floreagan amaituko den jokoan dagoen Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketaren ondoren, urtero bezala, Bolari Eguna hartuko du haren lekukoa. Ekainaren 2ko egun horrek Elgetako bolatokia izango du eszenatoki eta han jokatuko dira txapelketako "parrekuak" edo berdinketak erabakitzeko tiradak, goizeko 11:00-etan hasita. Ondoren izen handiko Lehendakari Txapelketa izango da, Gipuzkoako txapelketako 64 onenen artean, buruz-buru eta kanporaketa modalitatean. 14:30ean bazkaria izango da bolatokian eta aurtien Bihotza Azpi-



Ekainaren 2ko egun handian, Lehendakari Txapelketa jokatzeko gain, omenaldirako tartea ere izango da.



ri eta Arlindo Almeida omenduko dituzte. Amaieran, omenduei oroigarriak emateaz gain, txapelketako sariak banatuko dira, Ander Ariznabarreta "Arritxaren" musika lagun dutela. Bazkarirako izen-ematea hilaren 12an amaituko da.

Bestalde, San Migueleko Unai Loiola da gaur egungo liderra Gipuzkoako txapelketan, 24 txirlorakin, Gorka Etxaniz eta Xabier Loiolaren aurretik. Ea bihar Soraluzeko San Andres bolatokian jokatuko beharreko tiraldian Asola Berrikoek aurrera egingo duten.

Haritzak aurrerapausoa egin zuen maila igotzeko borrokan

Garaipen garrantzitsua lortu zuen gizonezkoen Eibar Eskubaloiko bigarren taldeak Muskizen, denboraldian porrotik ezagutzen ez zuen taldeari irabazita. Eibartarrak 26-30 nagusitu ziren partidu osoa egin ondoren: hasi Askasibar atezaina eta defentsan egindako lan bikainagatik eta Mikel Oregik bigarren lerroan eta Josu Fernandez de Lezeak pibotean egindako lanarekin amaitzeko. Euskal Ligarako igotzeko aukera hor jarraitzen du, beraz. Somos lehen taldeak, bere aldetik, 30-26 galdu zuen Iruñean izen handiko Anaitasunaren aurka; eibartarren lanak (batez ere, Moyua atepean eta Zabala goleatzaile lanetan) euren onena ematera behartu zituen nafarrak.

Harrobiko talde gehienak irabazle izan ziren azken jardunaldian: nesketan, jubencil mailan Aviak Aloña Mendiri irabazi zion Kopan, kadeteetan Avia 18-22 nagusitu zen Zarautzen eta Eibar Eskubaloia B taldeak Hernani garaitu zuen 30-21, eta infantiletan Bengoakoek 27-22 irabazi zioten Zarautzi. Mutiletan, bestalde, kade-



Haritzak denboraldiko sasoi onena bizi du une hauetan.

te mailako Teknikerrek 21-23 irabazi zuen Zarautzen eta Komatek galdu egin zuen Leizaranekin; eta infantil mailan, Hierros Servandok oraingoan amore eman behar izan zuen -hauek ere Zarautzekin-, baina hala ere denboraldi bikaina egin dute.

Txori kantarien lehiaketa jokatu da domeka goizean Olaben

Eibarko txori kantarien lehiaketak XVI. edizioa izango da etzi Arrateko Olabe zelaian. Gaur itxiko da bertan parte hartzeko izena emateko aukera eta lehiaketa bera goizeko 08:00etan zabalduko da, 08:45era arte iraungo duen kontrol prozesuarekin. Eibarko Karnaba Zaleak-ek Gipuzkoako Ehiza Federazioarekin elkarlanean antolatzen duen lehiaketan kardantxilo eta kardantxilomistoei har dezakete parte. Gure herriko lehiaketa hori silbestriismoak Eibarraren duen jarraitzaile kopuruaren adierazgarri da, urte-tik urtera indartu dena.



Murrukak Ermuko Torneoa irabazi du.

Bar Txokok Ermuko Murruka izango du aurkari KirolBet Sariaren domekako finalean

Domekan 11:00etan jokatu da KirolBet Sariaren 8. edizioaren finala, ohikoa denez, Eibarko eta Ermuko foball-zale-tu torneoetako liga irabazlearen artean. Murruka V. Rada izango du aurrez-aurre final horretan Bar Txokok Ermuko Beti-Ondo zelaian jokatu den norgehiagokan. Asteburu honetan, dena dela, partidu hori ez da bakarrik izango, aurrez elurragatik Eibarko torneoan atzeratutako jardunaldia jokatu baita bihar eta etzi. Jakina, Txoko txapeldunak bezperan jokatu du berea, Ipur Sagardotegairen aurka.

CD Vitoria mailari eusteko helburua lortzeko gertu

Azken jardunaldian 3-1 irabazi zion Eibar FT-ren filialak Caudal azken sailkatuari, Xesc-en bi golei eta Lararen hirugarrenari esker. Garaipen horrekin Igor Gordobilek entrenatzen dituen mutilek mailari eusteko play-offa jokatu beharko duen postua ere atzean laga dute eta gora begira jarri dira, batez ere kontuan izanda liga amaitzeko azken bi jardunaldietan euren atzetik dauden Lealtak eta Osasuna Promesas izango dituztela aurkari, biak ere dagoeneko maila galdutako taldeak direlako.

Gipuzkoako Mendi Federazioak antolatutako ikastaroak

Hilabete honetarako antolatutako bi ikastaroetan izena emateko epea zabaldu du probintziako mendi federazioak. Maiatzaren 12/13ko asteburuan Kirol Eskaladako egingo da Arritxulegin eta bitan banatuko da: hastapenekoan eskaladako materialarekin eta mundu bertikalarekin ohitu edo etxekotzea bilatuko da eta trebakuntzakoan hornitutako hormetako eskalada egingo dute, bietan ere burujabetasunez eta segurtasunez mugitzeko helburuarekin. Hilaren 26/27ko asteburuan Erreka Zintzurak jaisteko ikastaroa eskainiko dute Gipuzkoa eta Nafarroan. Hor hainbat teknika irakatsiko dira: sokarik gabe, sokarekin, inprobisazioa erabiliz, norbere burua sorosteko eta ur bizietakoak.



Esperientzia hartzeko balio izan die Ipuruako gimnastei Guadalajarako txapelketak

Emaitzak baino gehiago, hurrengo lehiaketetarako eskarmentua hartzeko baliatuko dute herriko gimnastek aurreko asteburuan Guadalajararako jokatu Espainiako Txapelketa eta Kopa. Zapatuan Kopako oinarri mailako kadete txapelketan parte hartu zuen boskotea 12. postuan sailkatu zen, 48ren artean, hiru aroekin eta bi pelotekin egindako ariketarekin. Aparatu bat edo besteren erorketak zigortu zuen oinarriko ligan parte hartu duen zazpikotearen lana;

hala ere, Ipuruako teknikoei goraipatu egin dute maila horretako gimnasten egindako denboraldia. Domekan junior mailako boskotearen hitzordua izan zen eta horrek ere 12. postuan amaitu zuen maila horretan egiten zuen debutean. Bihar Ipuruako 11 gimnasta ahaleginduko dira ekainean jokatu Espainiako txapelketa absoluturako txartela eskuratzen eta hilaren 20an taldekakoa izango da jokoan.

Eskola mailako lehiaketan, bestalde, infantil mailako hiru



Ipuruako gimnastak bidaiari lagun izan zuten senitartekoekin.

taldek hartu zuten parte Gipuzkoako B mailako bigarren fasean eta probintziako finalerako txartela eskuratu zuten.

Horrez gain, June Araujo lehen postuan pasatu zen hilaren 12 eta 13ko asteburuan Azepeitan jokatu den finalera.



Asobalen jokatzeko duen eibartarrak jardunaldiko gol onena lortu zuen

MMT Seguros Balonmano Zamorako Ander Iriartek Bartzelonaren aurka lortutako gol bat Asobal Ligako 28. jardunaldiko gol onena aukeratu dute. Zamorarrek 23-36 galdu zuten ligako txapelkunarekin, baina eibartarrak "fly"-z (baloia airean hartuta jokaldi guztia lurrik ikutu gabe gauzatzen dena) lortutako golak sari hori merezi izan du. Pasea Octavioren eskutik jaso zuen Iriartek eta, gol horretatik aparte, biak izan ziren Gaztela-Leongo taldearen onenak, bakoitza bederatzi golekin.

Katu Kale galtzaile azken asteburuan

Baja askorekin joan zen herriko saskibaloia taldea Donostia eta ezin izan zion Antigua Luberriri ezustekorik eman (52-35). Porrot horrekin garrantzi berezia hartzen du datorren asteko zapatuan, hilaren 12an, eibartarrek Ipuruan jokatu duten hurrengo partidua. Irabaztekoan, Katu Kale txartela eskuratuko luke 19/20ko asteburuan Donostian jokatu beharreko igoera faserako.

aire garbiaren bila

Bizkaiko Biraren 15. etapa egingo dute maiatzaren 12an

Laudioko Aretatik Orozkorainoko ibilaldiak 13 kilometro izango ditu

Bizkaiko Biraren etapa motzeta eta errazenetakoaren aurrean gaude. Hala ere, oso bista ederreko txangoa izango da, Nerbioi bailaratik irten eta Arrola mendi katea zeharkatuz Altube ibarrera jaitsiko dira-eta. Goiko travesia egiten duten bitartean Ganekogortak, Sierra Salvadak eta Gorbeiak eskaintako bista ezin hobeenekin disfrutatu ahal izango dute. Mendigainak ere ez dira desnibel handikoak: hasteko, Elorritxugane (721 m); handik Larragorria (751 m), zeharkaldiaren garaiena eta, jaisten hasita, Arrola menditik eta bere Santa Maria ermitatik pasatuko dira. Guztira 800 bat metroren desnibela gaitutako dute. Irteera goizeko 08:30ean izango da, autobusen geltokitik.

Irteeretan parte hartzeko Klub Deportiboko bulegoetan eman daiteke izena martitzenetan eta eguenetan (19:30-20:30).



Aurreko etapako irudia, Kamaraka tontorrean aterata.



Jabalina jaurtiketan nabarmendu ziren Deporreko atletak.

Deporreko ordezkariak zabala izan zen Unben jokaturako eskola mailako Gipuzkoako txapelketan

Postuetan ere ez ziren atzean geratu eibartarrak 400 parte-hartzaile baino gehiago izan zituen aurreko domekako txapelketan. Antolaketa bikaina izan zen Asier Cuevas Unbeko pistan jokaturako proba guztietan eta Klub Deportibokoak batez ere jabalina jaurtiketan nabarmendu ziren: infantil mailan, mutiletan podiuma osatzea lortu zuten, Imanol Egidazu, Pello Osoro eta Endika Varonarekin; eta nesketan, Miren Urizar eta Enara Magunazelaia izan ziren txapeldun eta azpitxapeldun. Egidazu, gainera, bigarren izan zen 150 metroko proban, jauzi hirukoitzean Nora Zabalak lortutako postu bera. Azken proba horretan Miren Urizar hirugarren izan zen eta postu hori eskuratu zuten Kalaka Gonzalezek (3.000 metroko lasterketan) eta Eneko Blancok (honek alebiretako 150 metrotan).

Mendilibarrek laugarren denboraldia egingo du Eibarrekin lehen mailan


Eibarko entrenatzaileak eta haren laguntzaileak sasoi baterako berriro dute kontratua Eibarrekin. Zantziek baiezkoa izango zela ematen zuen aditzera, batez ere berarekin gustora zeuden hainbat jokalarik kontratua berri-tzean eta azkenean, berak esan zuen moduan, "maiatzean erabakia jakinarazi" du.



Kontratu berritze horrekin datorren denboraldirako taldea osatzeko harririk sendo-ena ezarria dago eta agintari gorenek taldea Lehen Mailan egonkortzeko lanarekin jarraitu ahal izango dute.

Eibar-Energiako Mikel Mujika onenekin izan zen Santikutz Klasikoan

Legazpiko txirrindulariak lortu zuen profeta izatea bere jaioterrian eta, aurtengo probaren kartelaren protagonista izateak emandako indar gehigarriez baliatuz, LXXXV. Santikutz Klasikan onenekin helmugaratzea lortu zuen aurreko martitzenean. Caja Ruraleko Antonio Gomezek irabazitako proban, atzetik 42 segundora sartu zen multzoan izan zen Eibar Energiakoa, 13. postuan, berak zioen moduan "orain arte bizitzan egindako lasterketa onenean".



19 lagun izan ziren Moncayo eta Urbionera egindako irtenaldian

Eguraldi bikainarekin ibili dira mendiz-mendi Deporreko azken irteeran parte hartu dutenek, Maiatzaren 1eko zubia aprobetxatuz. Elurretan gozatzeko une paregabeak izan dute zapatutik martitzenera arte: apirilaren 28an Moncayora igo zuten, Agredako haitzulotik; egun horretan, dena dela, azkar jaitsi behar izan zuten, haizea eta hotza han zeuden-eta. Ondoren, Soriara abiatu ziren eta Covaledan kokatu zuten euren hurrengo irteerarako abiapuntua. Domekan Puerto Piquerasetik Terrazasera igo zuten (1.835 metro), gailurra egin eta Valdeavellanosen agertzeko. Astelehenean Virgen de Lomos de Oriana hasi eta Cebollera tontorra igo zuten (2.142) eta, kordalari jarraituta, Lomos de Oriara bueltatu ziren. Eta azken egunean Laguna Negratik Urbionera (2.229) igo zuten. Plana beteta!

Eibar Urko Ohorezko Erregional Mailara igo da bi jardunaldiren faltan

92. mituan gauzatutako penalti bati esker, Azpeitian Ikasberriri 0-1 irabazita, eibartarrak maila igotzea lortu zuen aurreko asteburuan. Euren garaipenari Tolosa bigarren sailkatuaren porrota gehitu zitzaion, horrela aldeaz zapi puntura handituz eta bi jardunaldiren faltan txapeldun geratzeko. Eibartarrak sendo egon dira ligako bosgarren jardunalditik aurrera eta orduetik Iban Fagoagak prestatutako taldeak ez du partidurik galdu. Orain dela bi denboraldi Eibar FT-ren organigraman sartu zen taldeak bere helburuetako bat lortu du iguera honekin.

Apirilean Azitain-La Salle ikastetxean Batxilergo Artistikoa egiten ari diren ikasleen artelanak ikusteko aukera izan genuen, Untzagako jubilatutxan ikusgai ipini zuten erakusketan. Ikasturtean zehar egindako lan batzuk eraman zituzten ikasleek, normala denez artelan guztientzat tokirik ez zegoen-eta. Hala ere, erakusketarako aukeratu zituztenak ikusita, begibistakoa da gazteen sormen ahalmenak eta imaginazioak mugarik ez dutela ezagutzen. Arte Ederretan lizentziatua den Ander Gisasola irakasleak eman digu artista gazte hauen martxaren berri.

ANDER GISASOLA

(Arte irakaslea):



“Diseinua eta irudiarekin lotutakoak indar handia daukate gaur egun”

- Ikastetxean Batxilergo Artistikoa ematen hasi zinetela urte bi bete dira. Nolakoak dira aukera hori hartzen duten ikasleak? Argi izaten dute artista izan nahi dutela?

Denetarik dago, baina oro har hala izaten da, bai, bokazio hori dute. Batxilergo Artistikoa aukeratzen dutenek artea gustokoa izaten dutelako hartzen dute bide hori, moduren batean esateko, artearekiko zaletasun horrek bultzatuta. Eurentzat artea denborapasa edo hobby modukoa da, baina aurrera begira artearekin loturaren bat duen zerbaitetan lan egitea izaten dute buruan.


- Artetik bizimodua ateratzea ez da inoiz erraza izan. Nolako irtenbideak ikusten dizkiote arteari?

Artearen esparru ezberdinei erreparatuz gero, diseinuarekin eta irudiarekin lotutakoek indar handia daukate gaur egun. Horiekin zerikusia duten gauza asko egiten dira eta, beraz, arteak ere horien inguruan sortzen joan diren lanbideetan dauka aplikazio gehien: kartelak egiten, publizitatean, etxe eta bestelako espazioen diseinuan, modan, ikus-entzunezkoetan... horrelakoetan lana badagoela ikusten dute. Artearen barruan diziplina ezberdinak daude eta gaur egun aipatu berri ditudan esparruek geroz eta toki gehiago betetzen dute, teknologia berrien eskutik hamaika bide berri zabalduta. Pintura edo bestelako diziplina klasikoetatik aldentzen joan gara eta gure gizarte ho-

nentzat beste horiek dira garrantzitsuenak. Artearen definizioa bera aldatzen joan da sasoiaren arabera: garai batean arteak edertasunarekin lotura izan behar zuten, hau da, apaintzeko funtzioa zuten. Gaur egun, aldiz, arteak ez du funtzio hori zertan bete.

- Nolako gauzak irakasten dizkiezue klasean?

Beste batxilergo modalitateetan irakasten diren ikasgai tronkalekin batera (gaztelania eta literatura, gorputz hezkuntza, ingelesa, filosofia, euskara, erlijio...) artearekin zuzenean lotutako beste batzuk (marrazketa, bolumena, diseinua, arte eszenikoak, plastika...) ikasten dituzte.



Esteban Plazaola Zubizarreta I. Urteurrena (2017-V-3)

“Bada urtebete gure aldetik joan zinela, baina ez maite zaitugunon bihotzetatik. Jakin ezazu, zuk landatutako hazia behar bezala indartzen eta zaintzen jarraitzen dugula”.

Zuk emandakoa ez dugu inoiz ahaztuko.

Izugarri maite zaitugu, Aitatxo.

ZURE EMAZTE ETA ALABAK

Bere aldeko urteurren MEZA maiatzaren 6an, domekan, goizeko 11:00etan egingo dugu Azkoitiko parrokian.

Idazle ezaguna izan zen Pio Baroja Euskal Herrian eta mundu guztian Aro Garaikidean (eta gaur egun). Miguel de Unamuno bilbotarra bezala 98ko belaunaldiko kidea zen eta ehun liburutik gora argitaratu zituen. Zalakain abenturazalea (*Zalakain el aventurero*) Barojaren liburu ezagunetako bat da eta, hortik abiatuz, Juan Antonio Urbeltzek Hirugarren karlistadan kokatutako kontakizuna hartu eta dantza ikuskizuna sortu du: *Martin Zalakain*. Kezka Dantza Taldeko 20 dantzarik hartzen dute parte bertan eta hilaren 19an 19:00etan eta 22:00etan egongo da ikusgai Coliseoan.



Pio Barojaren azalean sartu eta Martin Zalakain gaztearen istorioak kontatuko ditu Ander Lipus aktoreak Coliseoan eskainiko den *Martin Zalakain* ikuskizunean. Zuzeneko narrazioa egingo du aktore bizkaitarrak, 80 dantzari eta musikariri lerroa markatu eta gertakizunen berri emateko. XIX. mendeko bigarren erdialdeko Euskal Herrian kokatzen dira Martin Zalakainen abenturak, eta haren baitan sortutako gatazka eta gertaerak irudikatu dituzte dantzariak.

Zalakain abenturazalea eleberrian gertatzen den moduan, Martin Zalakainen eta Kattalin Ohandoren maitasun istorioaren harian egituratzen da ikuskizuna, eta Barojaren eleberria taularatu ahal

izateko, Harkaitz Cano idazleak liburua- ren hainbat pasarte eta gertaera egokitu ditu. Dantza, jokoa, musika... espresio-mota guztiak batzen dira ikuskizunean. "*Karlistaden garaian kokatutako Far West-eko nobela da*", Canok berak deskribatu bezala.

Martin Zalakain eibartarra

Literatura eta dramaturgia dantzarekin konbinatzen dira *Martin Zalakain* ikuskizuna sortzeko. Argia taldeak sortu du espektakulua eta Euskal Herri osoko dantzariak bildu ditu. Argia (Donostia), Duguna (Iruñea), Maritzuli (Biarritz), Elai-Alai (Portugalete), Haritz (Elgoibar), Gure-kai (Deba), Arkaitz (Añorga) eta Eibarko Kezka Dantza Taldeko 80 dantzari ari dira guztira Iñaki Arregi, Jexux Larrea era Fernando Aristizabal dantza-maisuen gidaritzapean. Musikari dagokionez, Mikel Urbeltz eta Marian Arregi arduratu dira musika-konposizio eta konponketez, eta Argiako musikariek batera arituko dira Ezpelurreko gaiteroak, Dugunako musikariak eta Plectro soka-taldea.

Kezka Dantza Taldeko 20 dantzarik hartzen dute *Martin Zalakain* ikuskizunean: Eider Agirrebeña, Olaiz Agirrebeña, Leire Andikoe-txea, Luken Aranburu, Oier Araolaza, Egoitz Blanco, Maitane Fariñas, Josu Garate, Maite Gonzalez, Miren Hazas, Enrike Izagirre, Idoia Lahidalga, Jone Lahidalga, Ainhoa Larrañaga, Amaia Rodriguez, Jone Saez, Amaia Visus. Horien artean dago protagonista, Martin Zalakain, Josu Garatek egiten duelako bere papera.

Bi emanaldi

Urte bi eman zituzten *Martin Zalakain* prestatzen eta Eibarko Hezkuntza Esparruan hainbat entsegu egin zituzten. ikuskizuna azaroaren 11an Bilboko Arriaga Antzokian aurkeztu zen eta 5.000 ikusle baino gehiago izan ditu dagoeneko. Victoria Eugenia, Balarate eta *Scene National!*-en emanaldiak eskaini eta gero, Martin Zalakain Coliseora iritsiko da hilaren 19an. Salgai jarri eta bi egunetara sarrera guztiak agortu zirenez, bigarren emanaldi bat eskainiko dute. Ez dago 19:00etako saioa ikusteko sarrerarik, baina 22:00etako sarrerak txarteldegian edo Kutxabanken (www.kutxabank.es webgunean Coliseo Eibar bilatu) daude salgai.



Juan Antonio Urbeltzek zuzendutako ikuskizunak Hirugarren karlistadan kokatutako kontakizuna eskaintzen digu.





DIEGO GUGLIELMI
(Gelati Gelati)

- Begiak itxita egingo da izozki dastaketa. Begiak itxetan beste zentzuak zorrozten direlako?

Momentu dibertigarriak pasatu nahi ditugulako itxiko ditugu begiak. Izozki bat begiak itxita probatzen duzunean nahiko zaila da zer den imajinatzea, hotzak zaporea eta usaina hiltzen dituelako eta dena lokartzen duelako. Sentsazio guztiak izozten dira. Hala ere, momentu batean gauza dibertigarriak gerta daitezke.

- Nolako izango da dastaketa?

Hari bat jarraitzen saiatuko gara. Adibidez, dastaketetan zitrikoak probatzen ditugu lehenik eta, gero, adin guztietako umeekin elkarri eragiten saiatzen gara, 6 urtetik 80 urtera arte. Bidaia gastronomikoak izaten dira, herrialde batetik bestera jauzi eginez. Gure asmoa dibertitzea da.

- Veronatar bik sortu zenuten Gelati Gelati, baina bertako produktuak erabiltzen dituzue eta 'kilometro 0' filosofia jarraitzen duzue. Italian bezain izozki onak sortu daitezke hemen?

“Izozkiak elikagaiak dira, gero eta gehiago”

Eguzkiak giroa berotzen duenean, hondartzan ordu batzuk pasatzean, bazkaldo afal ostean... edozein momentu da ona izozki bat jateko. Gaur egun are gehiago, izozkiak elikagai bat gehiago bihurtu direlako Diego Guglielmiren ustetan. Bere anaia Ginorekin Gelati Gelati izozki-denda zabaldu zuen Diegok Santutxun 2004an eta lau denda dituzte orain. Tailerrak eskaintzen dituzte eta izozki-dastaketa egingo dute '...eta kitto!'-n maiatzaren 9an 19:00etan.

Bai, jakina. Produktu zoragarriak ditugu Euskal Herrian eta euskaldunei ondo jatea gustatzen zaie, beraz, Italiakoak bezalako izozki onak egin daitezke hemen, duda barik.

- Zein gauza hartu behar dira kontuan izozkiak egiteko?

Ondo pasatzea, gozatzea, ezinbestekoa da. Umeak izango bagina bezala sentitu behar gara izozkiak sortzean. Umiltasunez eta pasio handiarekin egin behar da lan, baina dibertitu egin behar zara zerbait sortu nahi baduzu.

- Egiten disfrutatu, gero kontsumitzaileek jaten gozatzeke?

Hori da! Bezeroen esker ona jasotzean lortzen duzu sari potoloa.

- Zer esango zenieke izozkiak udarako direla pentsatzen dutenei?

Izozkiak elikagaiak dira gero eta gehiago. Modak aldatzen doaz. Nik 15 urte daramatzat Euskal Herrian eta azken aldian izozki-denda asko zabaldu dira. Denda guztiak helburu bera daukate, kalitatezko

produktuak eskaintzea. Izozkiek kapritxoak izateari utzi diote elikagaiak izateko eta lan onena egiten duena haziko da.

- Gelati Gelati bezala?

Gauzak ez zaizkigu gaizki joan. Izozki-denda txiki batekin hasi ginen eta lau ditugu orain. Gainera, beste denda batzuentzat izozkia egiten dugu.

- 150 zapore ezberdinetako izozkiak sortu dituzue. Nola sortzen dira izozki zapore berriak?

Askotan bezeroek eskatzen digute zapore bat sortzea, baina gu nahiko ipurterreak gara eta, moden arabera, zapore berriak sortzeko aukerak daude. Orain superrelikagaiak daude denon ahotan eta espirulina alga edo kurkuma bezalako zaporeak sortu ditugu. Beganismoa ere modan dago eta hainbat izozki zapore sortu ditugu horren inguruan. Bestetik, gastronomian izozkiak gero eta gehiago erabiltzen dira jakie laguntzeko: Japoniako gastronomian, arrain gordinaren alboan izozkia jartzen da, zapore-oreka lortzeko.

Eskolatik lan mundura euskaraz! mintzodromorako izen ematea zabalik

Lanbide Heziketa egiterako orduan ikasle gehienak gaztelaraz matrikulatzen direla eta gai horrekin arduratuta antolatuta dute mintzodromoa Armeria Eskolak eta Uni Eibar-Ermuak, Udalarekin eta ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean. Maiatzaren 9an, izango da, eguaztena, goizeko 10:00etatik 12:00etara Untzaga plazan. Eibar eta inguruko herrietako irakasleak, orientatzaileak, ikasleak eta enpresetako ordezkariak gonbidatu dituzte, baina mintzodromoa irekia izango da, gaiaren inguruan kezka duenak hartu ahal izango du parte. Izena emateko idatzi elkarte@etakitto.eus helbidera.



Domekara arte eman daiteke izena “Oporrak afariketan” eta “Udan jolasean” udaleku irekietan

Maiatzaren 6ra arte egongo da zabalik “Oporrak afariketan” eta “Udan jolasean” udaleku irekietan parte hartzeko izen emate epea. 5-11 urte bitarteko haurrek aukera paregabea izango dute ahaztu ezinezko udaldia pasatzeko. Udan jolasean programa 5 urteko haurrei zuzendua dago, hau da, 2012. urtean jaiotako haurrentzat. Oporrak afariketan, aldiz, lehen hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara bitarteko haurrentzat pentsatutako ekimena da. Izen-emateak on-line egin behar dira www.astixa.eus-en



Eibarko SOSTOA ABESBATZA

Aro berria hasiko du Sostoaak biharko kontzertu sakroarekin

Sostoa abesbatzak urtero egiten du musika sakroari eskainitako kontzertua eta aurten ere hala egingo du, bihar arratsaldean, Karmengo Amaren elizan (Karmelitetan). Emanaldian elizako kantuak abestuko dituzte, 20:00etatik aurrera, baina kontzertua hasi baino lehen, 19:00etan hasiko den mezan ere kantatu egingo dute. Sostoa kideek azaldu digutenez, *"kontzertu berezia izango da, zuzendari berriarekin egingo dugun lehena izango delako. Horregatik jende guztia etortzera animatu nahi dugu, abesbatzaren aro berria hasteko emango dugun kantaldiarekin disfrutatuz egingo dute eta"*.



Euskal Jaiko afari-kanturako eta herri-bazkarirako txartelak salgai

Eibarko Klub Deportiboko Kultura Batzordeak antolatzen duen Eibarko Euskal Jaiaren 53. edizioa abian da dagoeneko eta hilaren azken asteburuan egingo diren ekitaldi jendetsuenak forma hartzen hasi dira. Horrela, asteburu horretan egingo diren kantu-afarirako (hilaren 26an, 21:30ean) eta herri-bazkarirako (hilaren 27an, 14:30ean) salgai jarri dira Klub Deportiboan eta maiatzaren 21era arte eskuratu ahal izango dira. Ekitaldi bietan inguruko baserrietako produktuak erabiliko dira eta prezioa ere merkea izango da (12 eta 10 euro), aurreko urteetako berbera.

"%100 Oion" hitzaldia

Gaur arratsaldean, 18:30ean "%100 Oion. Elkarbizitza sustatu eta zurrumurruak uxatzeko diskoa" izenburuko hitzaldia emango du Maite Arroitauregik (Mursego) ...eta kitto! Euskara Elkartean. Oionen elkarbizitza sustatzeko proiektua da %100 Oion. Zortzi abestik osatzen dute diskoa eta abestietan herriko zurrumurruak, kexak edo bizikidetzak bezalako kezak lantzen dira. Horri buruzko gogoeta egiteko balio du hitzaldiak. Sarrera irekia izango da eta herritar guztiak daude gonbidatuta.




Musika Bandaren kontzertua

Domekan 12:30ean eskainiko du kontzertua Eibarko Musika Bandak, Coliseoan. Carlos Sanchez-Barbak zuzenduko duen emanaldirako programa hau da: "Puenteaereas" (pasodoblea, R. Soutullo), "Euskeria" (rapsodia, M. San Miguel), "Pomp and Circumstance" (martxak, E. Elgar), "La isla de las perlas" (aukeraketa, P. Sorozabal) eta "Frank Sinatra Hits Medley" (aukeraketa, konponk. N. Iwai).

MICE-ren hurrengo kontzertuak

Eibarren zein inguruko herrietan emanaldi ugari eskainiko ditu Miren Narbaizak (MICE) datozten asteotan. Maiatzerako lotutako kontzertuak hauek dira: gaur Zarautzen, Putzuzulo gaztetxean emango du; 17an Iruñean, Erraldioen txokoan; 18an Soraluzen, Gaztetxean; 20an Oreretan, Niessenen; 24an Eibarren, Kultun; eta 27an Gasteizen, Artiumen. Eta ekainerako aurreikusitakoak, berriz, beste hauek: 16an Zestoan, Gaztetxean; 17an Larrabetzun, Hori bai gaztetxean; 24an Eibarren, txosnetan; 28an Durangon, Intxaurren; eta 29an Itziarren, Burugorri aretoan.



JOSE ARZA AJURIA

1. urteurrena: 2017-V-2

"Bizi garen artean ez zaitugu ahaztuko"

ETXEKOEK



Bere aldeko Urteurren MEZA maiatzaren 6an, domekan, izango da San Agustin parrokian, 13:00etan hasita.



IÑAKI UGARTEBURU

Bizikletaren Nazioarteko Eguna

Urtero legez apirilaren 19an "Bizikletaren Mundu Eguna" izan zen; bizikletaren erabilera sustatzeko, txirindularien segurtasuna erreibindikatzen, mugikortasun jasangarria proposatzeko, herritarrentzako herriak eta hiriak eskatzeko, bizitza osasungarriagoa izateko...

Badakit Euskal Herrian bizi garela, eta "amaitzear" dagoen negua nolakoa izan den ere ezin ahaztu, baina bizikletak gehiago erabiltzeko gonbidapenarekin natorkizue.

Asko dira asmatu ditzakegun aitzakiak nire eskaerari ezetza emateko: auto larregi daude, ez dakit nondik joan behar naizen, aldapa asko daude, eguraldia... Kasu askotan arrazoi guztiarekin baina, gaur egun, gurea baino hotzagoak, aldapatsuagoak eta auto gehiago dituzten hainbat tokitan, bizikletaren erabilera gurean baino askoz ere altuagoa da.

Urte batzuk badituzte eta oraindik ere gogoratzen dut 70eko hamarkadan lagun kuadrila osoak, udan, Debako txaletei buelta ematen genienean bizikletako manillarrean eskuak jarri barik; edo Eibarko kaleetan bizikletaz ibiltzen ginenean. Kaleetan jolasten genuen, oinezkoen, pertsonen, haurren, gazteen eta helduen kaleak ziren.

Gaur gure inguruetako herri gehienetan hori galduta dago. Autoentzako kaleak dira eta gure bizi-kalitatearen maila jaitsi da. Ez nabil ezer asmatzen, Europako hainbat tokitan apustu garbia eta handia egin dute hiriko mugikortasuna aldatzeko, pertsonentzako hirietara bueltatzeko.

Bizikleta gehiago erabiltzea on da gure osasunarentzat, gure ingurumenarentzat, gure bizikidetzarentzat... eta herritarrek garen aldetik, bizikleta gehiago erabilia, hiri eta herri seguruagoak, atseginagoak, politagoak erreibindikatu ditzakegula uste dut.

Norberak egin behar du lehenengo aldaketa, ondoren besteei eskatu edota erreklamatzeko.

Animo, gure esku dago!



Hasi dira XXXIV. Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Jardunaldiak

Eguazten goizean aurkeztu zuten Portalean XXXIV. Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Jardunaldietarako prestatu duten egitaraua antolatzaileek, Uni Kultur Elkarteko Juan Ortega eta Ricardo Martinek, Patxi Lejardi Kultur saileko zinegotziak eta Jose Luis Gonzalez "Poxpolo" sail horretako teknikariak. Azaldu-takoaren arabera, ekimena antolatzeko arrazoi nagusia "Eibarko eta Debabarreneko umeek antzerkia ikustea" izaten jarraitzen du eta, horregatik, ikastetxeetako arduradunei "antzerkia erabiltzeko" eskaera egiteko aprobetxatu zuten ekitaldia. Egitaraua publiko orori zuzenduta dago, baina, bereziki, txikieneztat pentsatutako da. Maiatzean zehar emanaldi ugari eta desberdinekin gozatzeko aukera izango dugula aurreratu zuten: "Drag-e uraren bila" (Logela Multimedia), "Isabelita la miracielos" (Narruzko Zezen), "Euria" (Markeliñe), "Gro-

wing Young" (Dantzas Konpainia), "Alberti, un mar de versos" (T. Malta, T. Páramo y SM-suena P.), "Enperadorearen jantzia" (Lekim Animazioak), "7D Máquina de Realidad Virtual" (Territorio Violeta) eta "Mendi tontorren" (Txalo Produzioak) lanek osatzen dute edizio honetako egitaraua.

Emanaldiak Coliseo antzokian eta Hezkuntza Esparruan eskainiko dira (maiatzaren 23ko lana Untzagan, autobus batean izango da, 20 bat minutuko iraupena izango du eta 10 funtzio egingo dira; bakoitzean 18 bat ikasle sartuko dira). Maiatzaren 5ean eta 10ean Coliseoan izango diren emanaldietarako sarrerak 5 euro balio du eta ohiko salmentaren bidez eskuratu daitezke txartelak. Beste ikuskizunak doakoak dira, eta toki guztiak bete arte gonbidapenak eska daitezke (Egoitza Zentroan, 943254465 telefono zenbakira deituta).

"Comité Eléctrico taldearen kontzertua bihar Ez Dok-en

Bihar 23:30ean "Comité eléctrico" talde asturiarrak bere lehen lana, "7" izenburuko diskoa zuzenean aurkeztuko du Ez Dok tabernan. Taldekideen berbetan, "pekatu desberdinetan oinarritutako abesti hauen esentzia EzDok Rock-en sortu zen eta, horregatik, aurkezpena bertan egin nahi genuen". Zalantza barik, ekainaren hasierarako prestatu duten jaialdirako girotzen joateko aitzakia aparta izango da biharko emanaldia. Izan ere, ekainaren 1ean eta 2an Ezdokfest musika jaialdia ospatuko da Unben eta prestatu duten kartela ez da sarritan ikusten den horietakoa: barixkuan Toundra, Belako, Nerabe, Joseba B. Lenoir, Dead Bronco, Jardin de la Croix, Viva Belgrado eta Vulk taldeek jardungo dute eta zapatuan, berriz, Berri Txarrak, Comité Eléctrico, Doblecapa, Mud Candles, The Soulbriker Company, Melange, Kokein, Futuro terror, Biznaga eta Cuchillo de fuego. Sarrerak honezgero salgai daude, www.ezdokfest.com helbidean eta Ez Dok tabernan.





“Ergela” antzezlana gaur ERMUAN

Begoña Bilbaok zuzendutako “Ergela” antzezlana eskainiko du Txalo Producciones taldeak gaur 22:15ean Ermuko Antzokian. Joseba Apaolaza eta Sara Cozar taula gainean ikusteko aukera izango dugu. Froga psikologiko batzuetara aurkeztu da protagonista, diru pixka bat irabazteko asmoz. Bere arazo ekonomikoak konpontzeko diru erraza irabaztekoan joan da, baina tranpa eta iruzurra aurkituko ditu ordainetan.



Inmigrazio jardunaldien egun nagusia bihar ERMUAN

Bihar, zapatua, Ermuko Inmigrazio jardunaldien egun nagusia izango da. Ermuko Nazioarteko Lankidetzeta eta Elkartasun Kontseiluak antolatuta, “Aniztasuna, gure herriko aberastasuna” da aurtengo ekimenaren goiburua, eta Udalaren, herriko ikastetxeen, Antxixiketaren, Mudo-Drogoten eta Eibarko Rugby Taldearen babesa jaso du. 11:00etatik hasita iluntzera arte, denetarikok kultur ekimenak izango dira ikusgai eta gozagarri Orbe Kardinala plazan, eta hennazko tatuajeak, trentza afrikarrak eta marrazkiak egiteko aukera ere izango da.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Manuel Fernandez Cano. 93 urte. 2018-IV-26.
- Francisco Sanabria Barahona. 84 urte. 2018-IV-28.
- Luis Crespo Ojea. 85 urte. 2018-IV-30.
- Manuel Ferreiro Rueda. 77 urte. 2018-V-1.

jaiotakoak

- Nur Lashab. 2018-IV-23.
- Libe Olabarria Armentia. 2018-IV-26.
- Ali Benseiam El Souhaili. 2018-IV-28.
- Nurraína Cherif. 2018-V-1.

farmaziak

- Barixakua 4**
EGUNEZ **Castafío** (J. Etxeberria, 7)
- Zapatua 5**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Domeka 6**
EGUNEZ **Castafío** (J. Etxeberria, 7)
- Astelehena 7**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Martitzena 8**
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Eguaztena 9**
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Eguena 10**
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Barixakua 11**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI -2018AN-
Lafuente (Sostoatarren, 10)

SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

4	7	5	6	9	8	3	2	1
9	1	8	5	2	3	4	7	6
6	2	3	1	7	4	5	9	8
1	8	9	2	3	5	7	6	4
5	6	4	7	1	9	2	8	3
7	3	2	4	8	6	1	5	9
8	5	6	3	4	7	9	1	2
2	4	7	9	6	1	8	3	5
3	9	1	8	5	2	6	4	7

9			7	3	8			
	4							1
		6						
5	2			8	4			
	8		1		9			
	7	3			2		6	
					3			
6						4		
		5	4	6				9

telefono

jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 4

HITZALDIA

18:30. “%100 Oion. Elkarbizitza sustatu eta zurrumurruak uxatzeko diskoa”, Mursegorekin. ...eta kitto! -n.

ZINE FORUM

19:00. “La batalla de los sexos”, Pagatxaren eskutik. Portalean.

XXXV. DIA DAS LETRAS

19:00. Jaien hasiera eta txosna zabaltea. Os Galaicos-en kalejira. Pailazoak eta umeendako animazioa, Aeiou Animaciones-ekin.
22:00. Dantzaldia, Breixa Brand orkestrarekin. Urkizun.

GURE ESKU DAGO

19:00/20:30. Ekainaren 10ean egingo den giza-katerako izen-ematea. Klub Deportiboan.

ANTZERKIA

20:30. “Todas las noches de un día” (Pentación). Coliseoan.

GIN TONIC FINALA

20:30. III. Gin Tonic lehiaketakoa. Untzagan.

Zapatua 5

GURE ESKU DAGO

10:00/15:00. Ekainaren 10ean egingo den giza-katerako izen-ematea eta informaziorako mahaia. Untzagan.

SANTA KURUTZEKO JAIK

10:30. Kanpaiak.
11:00. Meza, ermitan, Gorosta eta Mandiolan hildakoen alde. Ondoren, hamaiketakoa.
12:00. Trikitilariak: Unai Andonegi eta Oier Baltzola.
12:30. Haurrentzako jolasak.
13:00. Herri kirolak, auzoko gazteen eta Zelaitarren-ekin.
14:30. Bazkaria, Ixua jatetxean. Gero, erromeria.
19:30. Esku pilota lehiaketa (*barruska*). Txapeldunak saria izango du. Arrateko frontoian.

XXXV. DIA DAS LETRAS

11:30. “Chaves” jaurtiketa mistoa, haurrentzat.
12:00. Herri-kirolak.
13:00. Igel-toka txapelketa.
13:00. Luntxa, Galiziako Etxean.
16:00. “Chaves” jaurtiketa mistoa, helduentzako.
18:30. Galizia eta Andaluziako dantza eta musika erakustaldia, Os Galaicos eta Aire Andaluz taldeekin.
20:30. Dantzaldia, Compostela orkestrarekin.
23:00. Goizaldera arte, dantzaldia Compostela orkestrarekin. Urkizun.

MANIFESTAZIOA

12:00. Pentsioen alde. Untzagan.

IKASTETXEETAKO PATIOAK ZABALTZEA

16:00/20:00. Arrateko Andra Mari, Amaña eta Urkizu patioak zabalduko dituzte.

ANTZERKIA

17:00. “Drag-e uraren bila” (Logela Multimedia). Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketa. 5 euro. Coliseoan.

KONTZERTUA

19:00. Sostoaren kontzertu sakroa (20:00etako mezaren aurretik). Karmengo Amaren elizan.

Domeka 6

SANTA KURUTZEKO JAIK

09:45. Santa Kurutzera igoera, Urkizuko iturritik. Saria zozketatuko da parte hartzaile guztien artean (izen-ematea 10:00etan).
10:30. Kanpaiak.
11:00. Meza nagusia ermitan eta, jarraian, piskolabisa, Mugi Panderoak girotua.
12:00. Soka-dantza Kezka dantza taldearen eta Usartza txistulari bandarekin.
12:30. Haurrentzako jolasak.
13:00. Txapel jaurtiketa, nahi duten guztientzat.
14:30. Kanpai hotsez amaituko dira jaiak.

XXXV. DIA DAS LETRAS

11:45. Untzaga plazan Eibarko Trikitilari taldeari harrera eta kalejira Urkizuko parkeraino.
12:30. Kezka dantza taldeari harrera. Dantza eta musika erakustaldia.
14:00. Lore-eskaintza Castelaoren oroigarrian.
15:00. Bazkaria..
18:30. Dantzaldia, Stereo orkestraren eskutik.
22:00. Jaien amaiera. Urkizun.

KONTZERTUA

12:30. Eibarko Musika Banda. Coliseoan.

ANTZERKIA

20:30. “Isabelita la miracielos” (Narruzko Zezen). Doan. Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketa Hezkuntza Esparruan.

Astelehena 7

IKASTEN

16:00. Landareen Foroa: San Joan lorea, babak, ekilorea. Portalean.

BIDEO-FORUMA

19:00. “La Reina Roja”, Pagatxaren eskutik, Emakumeen Historiak egitasmoaren barruan. Portalean.

Martitzena 8

IKASTEN

10:00. “Uhin grabitatoriak” hitzaldia, Juan Canalesekin. Armeria Eskolan.

ANTZERKIA

15:00. “Euria” (Markeliñe). Doan. Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketaren barruan. Hezkuntza Esparruan.

IKASTEN

16:00/19:00. Punto-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

AURKEZPENA

19:00. Tantanez Tantan ekitaldiaren aurkezpen publikoa. Eibarko Bizikleta Plazan.

Eguaztena 9

MINTZODROMOA

10:00/12:00. Mintzodromoa. Armeria Eskolak eta Uni Eibar-Ermuak, Udalarekin eta ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean antolatuta. Untzagan.

DASTAKETA

19:00. “Gelati- gelati” izozkien dastaketa. ...eta kitto! Euskara Elkartean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan

DANBORRADA

19:00. San Juan jaietan umeen danborradan parte hartuko dutenentzat entsegua.
20:00. Helduen danborradarako entsegua. Bittor Sarasketa kalean udalak duen lokalean (Beistegi eraikinean).

Eguena 10

IKASTEN

10:00. “Gaixotasunak eta bere kausa emozionalak” hitzaldia, Carlota Olaizolarekin. Armeria Eskolan.

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza (beheko maila).
18:00. Dantza (maila altua).
19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

GURE ESKU DAGO

19:00/20:30. Ekainaren 10ean egingo den giza-katerako izen-ematea. Klub Deportiboan.


ANTZERKIA

20:30. “Growing young” (Dantzaz Konpainia). 5 euro. Debabarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketa. Coliseoan.

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, PERU, mutil haundi, hillaen 2xan 4 urte bete zenduazena-eta. Patxo haundi bat famelixa eta, batez be, Aiora eta Lur-en partez.



Zorionak, UNAI Miguel Caravantes, bixar 2 urte beteko dozuz-eta. Jarraitu zaren bezala izaten, bitxito! Etzeko guztien partez.



Zorionak, MAIALEN, etzeko sorgintxua, hillaen 7xan 3 urte beteko dozuz-eta. Patxo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, UNAI Agudo, hillaen 9xan urtiak egingo dozuz-eta. Ama, aitta eta Uxueren partez.



Zorionak, JULEN, atzo 4 urte egin zenduazena-eta! Patxo potolo bat etzekuen partez.



Hamar urte, hamaika bizipen! Eskerrik asko zaren bezalakua izatiagaittik. Zorionak, MANEX!!



Zorionak, MALEN eta JON, zuen lehen eta hirugarren urtebetetzietan. Famelixakuen partez.



Zorionak, OXEL, bixar 5 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixakuen eta, batez be, MARAren partez.



Zorionak, IRENE, bixar 20 urte beteko dozuz-eta. Ondo ospatu eguna! Askok maite zaittugu, polittori!

Erakusketak

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

Maiatzaren 26ra arte:

— “TIBETOKO JENDEA” MIGUEL PARREÑOREN ARGAZKIAK (*El Corte Inglés*)

Maiatzaren 27ra arte:

— NAZIOARTEKO GIPUZKOA SARIKO ARGAZKIAK (*Untzagako jubilatutxua*)

— VIRGINIA ARAKISTAINEN ARGAZKIAK (*Topaleku*)

— EULALIA ABAITUA ALLENDE-SALAZAR FONDOKO ARGAZKIAK (*Portalea*)

— “ELKARRIZKETAK” OSKAR MANSOREN ARGAZKIAK (*Portalea*)

— “ALISTE, MITOAK ETA ERRITUAK” FELIX MARBANEN ARGAZKIAK (*Portalea*)

Maiatzaren 31ra arte:

— ARGIZAIOLA SARIKO ARGAZKIAK (*Portalea*)

— KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEAREN ARGAZKIAK (*El Ambigú*)

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

5ean: 19:45 (Antzokia), 22:30

6an: 17:00, 20:00

7an: 20:30

"Campeones"

Zuzendaria: Javier Fesser



(2 ARETOAN)

5ean: 17:00, 22:30

6an: 17:00, 20:00

7an: 20:30

"Un lugar tranquilo"

Zuzendaria: John Krasinski



(ANTZOKIAN)

5ean: 16:30⁽¹⁾, 19:30⁽¹⁾, 22:30

6an: 17:00, 20:00

7an: 20:30

"Vengadores. Infinity War"

Zuzendaria: Russo anaiak



OPERA

(2 ARETOAN)

5ean: 19:00

"Macbeth"

Musika: Giuseppe Verdi



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK** honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Matrimonioak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 664-823992.
- Familia arduratsuak 3 logelako pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 632-426847.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren, 2 logelarekin. Erreferentziak. Tel. 667-060292.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-532589.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Garaje itxia edo trasterodun garaje marraduna hartuko nuke alokairuan Ipuruan edo Legarre inguruan. Tel. 646-369330.
- Pabilioi industrialak alokagai Elgoibarko Olaso poligonoan, solairuaratean. 200+70 m². Instalazioarekin. Tel. 649-258913.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak gauzez zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Orduka. Tel. 671-763558.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarak egiteko eta pegorak garbitzeko. Tel. 602-022174.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-493758.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Formazioa eta esperientzia. Tel. 671-989434.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 664-337457.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta animaliak pasiatzeko. Tel. 642-827097.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta animaliak pasiatzeko (arriskutsuak gobernatzeko lizentziarekin). Orduka. Esperientzia. Tel. 664-823992.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 631-258718.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 643-130135.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 626-407923.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerarako. Tel. 612-469029.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko eta lore-zain edo margo-lanak egiteko. Tel. 632-426847.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 611-274429 eta 611-274451.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia. Tel. 680-526228.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-374132.
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 687-114707.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko arratsalde. Tel. 617-571210.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 699-535728.
- Gizona eskaintzen da margoketa-lanak, garbiketarak... egiteko. Esperientzia. Tel. 602-845202.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 632-436462.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Tel. 685-570813.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 667-060292.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 665-441723.
- Emakumea eskaintzen da kamarera jarduteko eta umeak zaintzeko. Tel. 643-006414.
- Mutila eskaintzen da kamarero moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 643-272978.
- Mutila eskaintzen da kamarero moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 643-272989.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 603-634777.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 633-351705.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 722-562241.
- Neska eskaintzen da pisuak, bulegoak edo pegorak garbitzeko eta nagusiak edo umeak zaintzeko arratsalde. Tel. 620-757528. Arrate.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Ordu-tegi malgua. Tel. 650-152866.

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 612-518050.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-130513.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 632-786952.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Erreferentziak. Tel. 612-571098.
- Emakumea eskaintzen da pisuak, tabernak edo soziedadekak garbitzeko eta umeak zaintzeko. Tel. 675-965130.
- Neska eskaintzen da txakurrak pasiatzeko. Tel. 605-598999.
- Gizona eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan, eraikituntzan jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 643-272992.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko, altzariak muntatzeko etabar. Tel. 643-272996.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 622-677230.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- LH eta DBH klase partikularrak ematen ditut. Euskaraz, gazteleraz edo ingelesez. Banaka eta taldeka. Tel. 685-282496.
- Euskarazko klaseak ematen ditut. Azterketarako prestaketa (EGA, IVAP, ...) eta umeentzako eskolarako erreferentzia. Tel. 620-608065.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Binilozko diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 688-624326.

6.3. Galdu/Aurkitu

- LG mugikorra galdu dut Errebal eta Legareren artean. Liburu estalki beltzarekin. Aurkitu baduzu, deitu. Tel. 943-201294.

Nahi bezain urrun
iristeko aukera
www.aldatze.eus


AURREMATRIKULA

K



ALDATZE

Col. Sta. M^a de la Providencia
ALDATZE Ikastetxea
Aldatze kalea, 5 20600 EIBAR
Tfnoa. 943 70 11 50 www.aldatze.eus



aldatze
haur-eskola

American High
School Diploma
www.academica.school



aldatze
batxilergoa

IES **UNI** BHI
EIBAR-ERMUA

AUKERA ZABALA!

**HEZIKETA ESKAINTZA:
A ETA D EREDUAK**

BATXILERGOAK

Zientziak eta Teknologia

Giza eta gizarte-zientziak

Aukerako irakasgaietan eskaintzarik zabalena

PROIEKTUAK ETA JARDUERAK

Nazioarteko ikasle-trukeak

UNI Encounter

Hizkuntzaren normalkuntza

Osasunarentzako programa

Urrats Bat

Agenda 21

Informatika ingelesez

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK:

- **INFORMATIKA:** Sistema Mikroinformatiko eta Sareak

- **MARKETING ETA MERKATARITZA:**

Merkataritza Iharduerak

- **ADMINISTRAZIOA:** Administrazio Kudeaketa

**BATXILERGORAKO
AURREMATRIKULA:**

MAIATZAREN 2-TIK 14-RA ARTE

ATE BEREKIAK:

MAIATZAREN 5EAN 11:00-13:00

TEL. 943 20 84 44

www.uni.eus

idazkaritza@uni.eus

[twitter@UniEibarErmua](https://twitter.com/UniEibarErmua)

www.facebook.com/iesunibhi



I.E.S Ignacio Zuloaga B.H.I

